b) La duración mínima del contrato será de un año y la máxima de tres.

No obstante, mediante convenio colectivo podrán establecerse distintas duraciones del contrato, en función de las necesidades organizativas o productivas de las empresas, sin que la duración mínima pueda ser inferior a seis meses ni la máxima superior a tres años.

En caso de que el contrato se hubiera concertado por una duración inferior a la máxima legal o convencionalmente establecida, podrá prorrogarse mediante acuerdo de las partes, hasta por dos veces, sin que la duración de cada prórroga pueda ser inferior a seis meses y sin que la duración total del contrato pueda exceder de dicha duración máxima.

Las situaciones de incapacidad temporal, riesgo durante el embarazo, maternidad, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, riesgo durante la lactancia y paternidad interrumpirán el cómputo de la duración del contrato.

c) Expirada la duración del contrato para la formación y el aprendizaje, el trabajador no podrá ser contratado bajo esta modalidad por la misma o distinta empresa, salvo que la formación inherente al nuevo contrato tenga por objeto la obtención de distinta cualificación profesional.

No se podrán celebrar contratos para la formación y el aprendizaje cuando el puesto de trabajo correspondiente al contrato haya sido desempeñado con anterioridad por el trabajador en la misma empresa por tiempo superior a doce meses.

d) El trabajador deberá recibir la formación inherente al contrato para la formación y el aprendizaje directamente en un centro formativo de la red a que se refiere la disposición adicional quinta de la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional, previamente reconocido para ello por el Sistema Nacional de Empleo.

No obstante, también podrá recibir dicha formación en la propia empresa cuando la misma dispusiera de las instalaciones y el personal adecuados a los efectos de la acreditación de la competencia o cualificación profesional a que se refiere la letra e), sin perjuicio de la necesidad, en su caso, de la realización de periodos de formación complementarios en los centros de la red mencionada.

44/2007) aurreikusitako talde baztertuekin egiten bada, betiere laneratze-enpresak kualifikatuta eta dagokion administrazio-erregistroan aktibo badaude.

b) Kontratuak urtebete iraungo du gutxienez, eta hiru urte gehienez.

Dena den, hitzarmen kolektiboaren bidez, kontratuaren bestelako iraupenak zehaztu ahal izango dira, enpresak antolamenduaren edo ekoizpenaren aldetik dituen beharren arabera. Hala ere, kontratuak ezin izango du sei hilabete baino gutxiago iraun, ezta hiru urte baino gehiago ere.

Kontratu legez edo hitzarmen bidez zehaztutako gehieneko iraupena baino laburragoa den epe baterako sinatzen bada, bi aldiz luzatu ahal izango da, alderdiek hala adosten badute. Nolanahi ere, luzapen bakoitzak ezin izango du sei hilabete baino gutxiago iraun, eta kontratuaren iraupen osoak ezin izango du aipatutako gehieneko iraupena gainditu.

Kontratuaren iraupenaren zenbaketa eten egingo da aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa, adopzio aurreko zaintza edo harrera, edoskitzaroko arriskua edota aitatasuna gertatzean.

c) Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuaren iraupena amaitutakoan, enpresa berak edo beste batek ezin izango du langilea modalitate berdinean kontratatu; bai, ordea, kontratu berriari lotutako prestakuntzaren xedea bestelako kualifikazio profesional bat lortzea bada.

Ezin izango da prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontraturik egin, baldin eta langileak, lehenagotik, hamabi hilabete baino denbora gehiagoan, kontratuari dagokion lanpostua enpresa horretan bertan bete badu.

d) Langileak prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuarekin loturiko prestakuntza jaso beharko du, zuzenean, Kualifikazioei eta Lanbide-heziketari buruzko Lege Organikoaren (ekainaren 19ko 5/2002) bosgarren xedapen gehigarriak aipatzen duen sareko prestakuntza-zentro batean, enplegu-sistema nazionalak zentroari horretarako onespina eman badio.

Nolanahi ere, langileak enpresan bertan jaso ahal izango du prestakuntza hori, baldin eta enpresan e) letrak aipatzen dituen gaitasun edo kualifikazio profesionala egiaztatzeko instalazio eta langile egokiak baldin badaude; dena den, kasu batzuetan, beharrezkoa izan liteke langileak aipatutako sarean prestakuntza-aldi osagarriak egitea.





La actividad laboral desempeñada por el trabajador en la empresa deberá estar relacionada con las actividades formativas.

La impartición de esta formación deberá justificarse a la finalización del contrato.

Reglamentariamente se desarrollará el sistema de impartición y las características de la formación de los trabajadores en los centros formativos y en las empresas, así como su reconocimiento, en un régimen de alternancia con el trabajo efectivo para favorecer una mayor relación entre este y la formación y el aprendizaje del trabajador.

Las actividades formativas podrán incluir formación complementaria no referida al Catálogo Nacional de Cualificaciones Profesionales para adaptarse tanto a las necesidades de los trabajadores como de las empresas.

Asimismo serán objeto de desarrollo reglamentario los aspectos relacionados con la financiación de la actividad formativa.

e) La cualificación o competencia profesional adquirida a través del contrato para la formación y el aprendizaje será objeto de acreditación en los términos previstos en la Ley Orgánica 5/2002, de 19 de junio, de las Cualificaciones y de la Formación Profesional, y en su normativa de desarrollo.

Conforme a lo establecido en dicha regulación, el trabajador podrá solicitar de la Administración pública competente la expedición del correspondiente certificado de profesionalidad, título de formación profesional o, en su caso, acreditación parcial acumulable.

f) El tiempo de trabajo efectivo, que habrá de ser compatible con el tiempo dedicado a las actividades formativas, no podrá ser superior al setenta y cinco por ciento, durante el primer año, o al ochenta y cinco por ciento, durante el segundo y tercer año, de la jornada máxima prevista en el convenio colectivo o, en su defecto, a la jornada máxima legal.

Los trabajadores no podrán realizar horas extraordinarias, salvo en el supuesto previsto en el artículo 35.3.

Tampoco podrán realizar trabajos nocturnos ni trabajo a turnos.

g) La retribución del trabajador contratado para la formación y el aprendizaje se fijará en proporción al tiempo de trabajo efectivo, de acuerdo con lo establecido en convenio colectivo.

Langileak enpresan egiten duen lanak prestakuntza-jarduerekin erlazionatuta egon behar du.

Prestakuntza jasotzea kontratua bukatzean justifikatu beharko da.

Erregelamendu bidez garatuko dira langileek prestakuntza-zentroetan eta enpresetan jasoko duten prestakuntzaren ezaugarriak eta irakasteko sistema, baita prestakuntzaren aintzatespena ere. Prestakuntza hori lan efektiboarekin txandakatuta emango zaio langileari, lotura estuagoa egon dadin lan efektiboaren eta prestakuntzaren artean, eta prestakuntzaren eta ikaskuntzaren artean.

Prestakuntza-jardueren barruan Kualifikazio Profesionalek Katalogo Nazionalean aipatzen ez den prestakuntza osagarria egon ahal izango da, langileen zein enpresen beharretara egokitzeko.

Erregelamendu bidez garatuko dira, halaber, prestakuntza-jardueraren finantzaketarekin lotutako alderdiak.

e) Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuaren bidez lortutako kualifikazioa edo lanbide-gaitasuna egiaztatzeko modua hauxe izango da: Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko Lege Organikoan (ekainaren 19ko 5/2002) eta berau garatzeko arauetan zehazturik dagoena.

Araudiak xedatutakoaren arabera, langileak dagokion profesionaltasun-egiaztagiria, lanbide-heziketako titulua edo, hala badagokio, egiaztapen partzial metagarria eskatu ahal izango dio administrazio publiko eskudunari.

f) Lanean benetan emandako denborak bateragarria izan beharko du prestakuntza-jardueretara zuzendutako denborarekin; edonola ere, ezin izango da izan hitzarmen kolektiboan aurreikusitako gehieneko lanaldiaren ehuneko hirurogeita hamabost baino handiagoa lehenengo urtean, ez eta ehuneko laurogeita bost baino handiagoa ere, bigarren eta hirugarren urteetan, edota, hitzarmen kolektiborik ez badago, legezko gehieneko lanaldiarena baino handiagoa.

Langileek ezingo dute aparteko ordurik egin; bai, ordea, 35.3 artikuluan aurreikusitako kasuan.

Gaueko lanik edo txandakako lanik ere ezingo dute egin.

g) Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langilearen ordainsaria lanean benetan emandako denboraren proportzioan finkatuko da, hitzarmen kolektiboan ezarritakoarekin bat.



En ningún caso, la retribución podrá ser inferior al salario mínimo interprofesional en proporción al tiempo de trabajo efectivo.

h) La acción protectora de la Seguridad Social del trabajador contratado para la formación y el aprendizaje comprenderá todas las contingencias protegibles y prestaciones, incluido el desempleo.

Asimismo, se tendrá derecho a la cobertura del Fondo de Garantía Salarial.

i) En el supuesto de que el trabajador continuase en la empresa al término del contrato se estará a lo establecido en el apartado 1.f).

3.

En la negociación colectiva se fijarán criterios y procedimientos tendentes a conseguir una presencia equilibrada de hombres y mujeres vinculados a la empresa mediante contratos formativos.

Asimismo, podrán establecerse compromisos de conversión de los contratos formativos en contratos por tiempo indefinido.

#### **Artículo 12. Contrato a tiempo parcial y contrato de relevo.**

1.

El contrato de trabajo se entenderá celebrado a tiempo parcial cuando se haya acordado la prestación de servicios durante un número de horas al día, a la semana, al mes o al año, inferior a la jornada de trabajo de un trabajador a tiempo completo comparable.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, se entenderá por «trabajador a tiempo completo comparable» a un trabajador a tiempo completo de la misma empresa y centro de trabajo, con el mismo tipo de contrato de trabajo y que realice un trabajo idéntico o similar.

Si en la empresa no hubiera ningún trabajador comparable a tiempo completo, se considerará la jornada a tiempo completo prevista en el convenio colectivo de aplicación o, en su defecto, la jornada máxima legal.

2.

El contrato a tiempo parcial podrá concertarse por tiempo indefinido o por duración determinada en los supuestos en los que legalmente se permita la utilización de esta modalidad de contratación, excepto en el contrato para la formación y el aprendizaje.

Ordainsariak inola ere ezin dira izan lanean benetan emandako denboraren proportzioan dagokien lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak.

h) Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratatutako langileari Gizarte Segurantzak emango dion babes-ekintzak kontingentzia babesgarri eta prestazio guztiak hartuko ditu, baita langabezia ere.

Horrekin batera, Soldatak Bermatzeko Funtsak eskainitako estaldurarako eskubidea izango da.

i) Kontratua amaitu eta gero, langileak enpresan jarraitzen badu, 1. zenbakiko f) letran ezarritakoa bete beharko da.

3.

Negoiazio kolektiboan, enpresan heziketa-kontratu bidez dabilzanen artean gizon-emakume arteko oreka lortzeko irizpideak eta prozedurak zehaztuko dira.

Era berean, heziketa-kontratuak lan-kontratu mugagabe bihurtzeko konpromisoak hartu ahal izango dira.

#### **12. artikulua. Lanaldi partzialeko lan-kontratuak eta txanda-kontratuak.**

1.

Lan-kontratua lanaldi partzialekoa dela ulertuko da langileak eskainiko dituen zerbitzuak egunean, astean, hilean edo urtean ordu kopuru jakin batetik beherakoak baldin badira, hau da, ordu kopuru hori lanaldi osoan diharduen langile baliokideak duen lanaldikoa baino txikiagoa baldin bada.

Aurreko lerrokadan xedatutakoari dagokionez, ondorengo joko da lanaldi osoko langile baliokidetzat: enpresa eta lantoki berean lanaldi osoa duen langilea, lan-kontratua mota bera duena eta lan berdin-berdina edo antzekoa egiten duena.

Enpresan ez baldin badago lanaldi osoko langile baliokiderik, ezarri beharrekoa den hitzarmen kolektiboan aipatzen den lanaldi osoa hartuko da erreferentzia moduan, eta halakorik ezean, legez ezarrita dagoen gehieneko lanaldia.

2.

Lanaldi partzialeko kontratua denbora-mugarik gabekoa edo iraupen mugatukoa izan daiteke, kontratu-modu hori erabiltzea legez onartuta dagoen kasuetan; prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratua salbuespena da.



3.

Sin perjuicio de lo señalado en el apartado anterior, el contrato a tiempo parcial se entenderá celebrado por tiempo indefinido cuando se concierte para realizar trabajos fijos y periódicos dentro del volumen normal de actividad de la empresa.

4.

El contrato a tiempo parcial se regirá por las siguientes reglas:

a) El contrato, conforme a lo dispuesto en el artículo 8.2, se deberá formalizar necesariamente por escrito.

En el contrato deberá figurar el número de horas ordinarias de trabajo al día, a la semana, al mes o al año contratadas, así como el modo de su distribución según lo previsto en convenio colectivo.

De no observarse estas exigencias, el contrato se presumirá celebrado a jornada completa, salvo prueba en contrario que acredite el carácter parcial de los servicios.

b) Cuando el contrato a tiempo parcial conlleve la ejecución de una jornada diaria inferior a la de los trabajadores a tiempo completo y esta se realice de forma partida, solo será posible efectuar una única interrupción en dicha jornada diaria, salvo que se disponga otra cosa mediante convenio colectivo.

c) Los trabajadores a tiempo parcial no podrán realizar horas extraordinarias, salvo en los supuestos a los que se refiere el artículo 35.3.

La realización de horas complementarias se regirá por lo dispuesto en el apartado 5.

En todo caso, la suma de las horas ordinarias y complementarias, incluidas las previamente pactadas y las voluntarias, no podrá exceder del límite legal del trabajo a tiempo parcial definido en el apartado 1.

A estos efectos, la jornada de los trabajadores a tiempo parcial se registrará día a día y se totalizará mensualmente, entregando copia al trabajador, junto con el recibo de salarios, del resumen de todas las horas realizadas en cada mes, tanto las ordinarias como las complementarias a que se refiere el apartado 5.

El empresario deberá conservar los resúmenes mensuales de los registros de jornada durante un periodo mínimo de cuatro años.

En caso de incumplimiento de las referidas obligaciones de registro, el contrato se presumirá celebrado a jornada completa, salvo prueba en

3.

Aurreko zenbakian aipatutakoaren kontra jarri gabe, lanaldi partzialeko kontratua denbora-mugarik gabekoa izango da honako kasu hauetan: enpresaren ohiko jardueren barruan lan finko eta aldizkakoak egiteko hitzartzen denean.

4.

Lanaldi partzialeko kontratuak ondorengo arauak bete beharko ditu:

a) Lege honen 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratua, nahitaez, idatziz jaso beharko da.

Kontratuan argi eta garbi zehaztu beharko da zenbat ordu arrunt egin behar diren egunean, astean, hilean edo urtean, baita horiek nola banatuta dauden ere, hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoaren arabera.

Baldintza horiek ez baldin badira betetzen, izenpetutako kontratua lanaldi osokoa dela pentsatuko da, non eta ez den bestelako frogarik aurkezten, eta horrek zerbitzuak partzialak direla erakusten.

b) Lanaldi partzialeko kontratuaren arabera egunean lanaldi osoko kontratua duten langileek baino ordu gutxiago egin behar badira, eta lanaldi hori zatitua bada, eguneroko lanaldi horretan eten bakarria egin ahal izango da, non eta hitzarmen kolektiboan besterik esaten ez den.

c) Lanaldi partzialeko langileek ezingo dute aparteko ordurik egin, salbu 35.3 artikulua aipatzen dituen kasuetan.

Ordu osagarriak artikulua honetako 5. zenbakian xedatutakoaren arabera egingo dira.

Dena den, ordu arruntek eta ordu osagarriek — aurrez hitzartutakoak eta borondatezkoak barne— osatutako kopuruak ezingo du gaintitu artikulua honetako 1. zenbakian lanaldi partzialerako zehaztutako legezko ordu-muga.

Hartarako, lanaldi partzialeko langileen lanaldia egunean-egunean erregistratuko da, eta hilean behin guztizko kopurua kalkulatu da. Soldataren ordainagiriarekin batera, langileari egindako ordu guztien laburpenaren kopia bat emango zaio hileroko, eta bertan, ordu arruntak eta 5. zenbakian aipatutako ordu osagarriak jasoko dira.

Enpresaburuak lanaldi-erregistroen hileroko laburpenak gorde beharko ditu, gutxienez lau urteko denbora-bitartean.

Adierazitako erregistratze-betebeharrak betetzen ez badira, izenpetutako kontratua lanaldi osokoa dela pentsatuko da, non eta ez den aurkezten zerbitzuak partzialak direla erakusten duen bestelako frogarik.



contrario que acredite el carácter parcial de los servicios.

d) Los trabajadores a tiempo parcial tendrán los mismos derechos que los trabajadores a tiempo completo.

Cuando corresponda en atención a su naturaleza, tales derechos serán reconocidos en las disposiciones legales y reglamentarias y en los convenios colectivos de manera proporcional, en función del tiempo trabajado.

e) La conversión de un trabajo a tiempo completo en un trabajo parcial y viceversa tendrá siempre carácter voluntario para el trabajador y no se podrá imponer de forma unilateral o como consecuencia de una modificación sustancial de condiciones de trabajo al amparo de lo dispuesto en el artículo 41.1.a).

El trabajador no podrá ser despedido ni sufrir ningún otro tipo de sanción o efecto perjudicial por el hecho de rechazar esta conversión, sin perjuicio de las medidas que, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 51 y 52.c), puedan adoptarse por causas económicas, técnicas, organizativas o de producción.

A fin de posibilitar la movilidad voluntaria en el trabajo a tiempo parcial, el empresario deberá informar a los trabajadores de la empresa sobre la existencia de puestos de trabajo vacantes, de manera que aquellos puedan formular solicitudes de conversión voluntaria de un trabajo a tiempo completo en un trabajo a tiempo parcial y viceversa, o para el incremento del tiempo de trabajo de los trabajadores a tiempo parcial, todo ello de conformidad con los procedimientos que se establezcan en convenio colectivo.

Con carácter general, las solicitudes a que se refiere el párrafo anterior deberán ser tomadas en consideración, en la medida de lo posible, por el empresario.

La denegación de la solicitud deberá ser notificada por el empresario al trabajador por escrito y de manera motivada.

f) Los convenios colectivos establecerán medidas para facilitar el acceso efectivo de los trabajadores a tiempo parcial a la formación profesional continua, a fin de favorecer su progresión y movilidad profesionales.

5.

Se consideran horas complementarias las realizadas como adición a las horas ordinarias pactadas en el contrato a tiempo parcial, conforme a las siguientes reglas:

d) Lanaldi partzialeko langileek lanaldi osoko langileek dituzten eskubide berak izango dituzte.

Legezko xedapenetan, erregelamenduzko xedapenetan eta hitzarmen kolektiboetan adierazi beharko da zein diren eskubideak, hala egin behar denean eskubideon ezaugarrien arabera, modu proportzionalan eta lanean emandako denbora-tartearen arabera.

e) Lanaldi osoko lan bat lanaldi partzialeko lan bihurtzea, eta alderantziz, beti izango da borondatezkoa langilearentzat eta ezingo da inposatu alde bakarretik edo lan-baldintzen funtsezko aldaketa baten ondorioz, 41.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren babesean.

Langileak bihurteta hori errefusatuko balu ere, ezingo da kaleratua izan eta ezingo zaio bestelako zehapenik edo ondorio kaltegarririk ezarri. Nolanahi ere, 51. eta 52.c) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, neurriak har litezke ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoiengatik.

Lanaldi partzialeko kontratua duen langileak bere borondatez lekuz aldatzeko aukera izan dezan, enpresaburuak hutsik dauden lanpostuen berri eman beharko die langileei, langileok lanaldi osoko lanpostuetatik lanaldi partzialekoetara aldatzeko edo alderantzikoa egiteko aukera izan dezaten, egin beharreko eskabidea eginda. Era berean, lanaldi partzialeko langileen lanaldia handitzeko balio dezake horrek. Hori guztia egin ahal izateko, baina, hitzarmen kolektibo bidez ezarritako prozedurak bete beharko dira.

Orokorrean, aurreko lerrokadan aipatzen diren eskabideak kontuan hartu beharko ditu enpresaburuak, ahal den neurrian behintzat.

Eskabideari ezezkoa ematen baldin badio enpresaburuak, idatziz jakinarazi beharko dio hori langileari, eta ezezkoaren arrazoiak eman.

f) Hitzarmen kolektiboetan neurriak zehaztuko dira, lanaldi partzialeko langileek etengabeko prestakuntzan parte hartzeko modua izan dezaten, langile horiek aurrera egiteko modua eta lanbidean lanpostuz aldatzeko aukera izan dezaten.

5.

Ordu osagarriak dira lanaldi partzialeko kontratuan hitzartutako ordu arruntei erantzen zaizkien orduak, honako arau hauen arabera:



a) El empresario solo podrá exigir la realización de horas complementarias cuando así lo hubiera pactado expresamente con el trabajador.

El pacto sobre horas complementarias podrá acordarse en el momento de la celebración del contrato a tiempo parcial o con posterioridad al mismo, pero constituirá, en todo caso, un pacto específico respecto al contrato.

El pacto se formalizará necesariamente por escrito.

b) Solo se podrá formalizar un pacto de horas complementarias en el caso de contratos a tiempo parcial con una jornada de trabajo no inferior a diez horas semanales en cómputo anual.

c) El pacto de horas complementarias deberá recoger el número de horas complementarias cuya realización podrá ser requerida por el empresario.

El número de horas complementarias pactadas no podrá exceder del treinta por ciento de las horas ordinarias de trabajo objeto del contrato.

Los convenios colectivos podrán establecer otro porcentaje máximo, que, en ningún caso, podrá ser inferior al citado treinta por ciento ni exceder del sesenta por ciento de las horas ordinarias contratadas.

d) El trabajador deberá conocer el día y la hora de realización de las horas complementarias pactadas con un preaviso mínimo de tres días, salvo que el convenio establezca un plazo de preaviso inferior.

e) El pacto de horas complementarias podrá quedar sin efecto por renuncia del trabajador, mediante un preaviso de quince días, una vez cumplido un año desde su celebración, cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

1.<sup>a</sup> La atención de las responsabilidades familiares enunciadas en el artículo 37.6.

2.<sup>a</sup> Necesidades formativas, siempre que se acredite la incompatibilidad horaria.

3.<sup>a</sup> Incompatibilidad con otro contrato a tiempo parcial.

f) El pacto de horas complementarias y las condiciones de realización de las mismas estarán sujetos a las reglas previstas en las letras anteriores.

En caso de incumplimiento de tales reglas, la negativa del trabajador a la realización de las horas complementarias, pese a haber sido pactadas, no constituirá conducta laboral sancionable.

g) Sin perjuicio del pacto de horas complementarias, en los contratos a tiempo parcial de duración indefinida con una jornada de trabajo no inferior a diez horas semanales en cómputo anual, el

a) Ordu osagarriak egitea eskatu ahal izateko, enpresaburuak berariaz hitzarmen bat egin beharko du langilearekin.

Ordu osagarriari buruzko hitzarmen hori lanaldi partzialeko kontratua izenpetzeko orduan bertan edo geroago egin ahal izango da, baina, kasu guztietan, kontratuaren barruko hitzarmen espezifikoak izango da.

Hitzarmena nahitaez idatziz formalizatuko da.

b) Ordu osagarriak hitzartu ahal izateko, denbora partzialeko kontratuak ez du, urteko zenbaketan, asteko hamar ordutik beherako lanaldia izango.

c) Ordu osagarrien hitzarmenean jaso beharko da enpresaburuak zenbat ordu osagarri egiteko eskatu ahal izango dion langileari.

Hitzartutako ordu osagarrien kopurua ezin izango da izan lan-kontratuan zehaztutako ordu arrunten kopurua baino ehuneko hogeita hamar gehiago.

Hitzarmen kolektiboek beste ehuneko maximo bat finkatu ahalko dute; hori ezingo da izan inondik ere aipatutako ehuneko hogeita hamar baino txikiagoa eta ezingo ditu gairitu kontratatutako ordu arrunten ehuneko hirurogeia.

d) Langileari hiru egun aurretik jakinarazi behar zaio zein egun eta ordutan egingo diren hitzartutako ordu osagarriak, non hitzarmenak ez duen ezartzen epe laburrago bat aurretiko jakinarazpena emateko.

e) Ordu osagarriari buruzko hitzarmena bertan behera utzi ahal izango du langileak, hamabost egun lehenago jakinarazten baldin badi, hitzarmen hori izenpetu zenetik urtebete igaro ostean, baldin eta ondorengo egoerarako bat gertatzen bada:

1.a Lege honen 37.6. artikuluan aipatzen diren familiako betebeharrak bati aurre egin behar baldin badi.

2.a Prestakuntzak ezarritako beharrezkoen egiaztatzen bada.

3.a Lanaldi partzialeko beste kontratu batekin bateraezina izateagatik.

f) Ordu osagarriak egiteko hitzarmena eta haiek egiteko baldintzak goragoko letretan aurreikusitako arauen mende daude.

Arau horiek betetzen ez badira, langileak ordu osagarriak egiteari uko egitea (nahiz eta hitzartuta egon) ez da lan-arloko zehapena eragiteko moduko gertakaria izango.

g) Ordu osagarrien hitzarmenaren kontra egin gabe, iraupen mugagabeko lanaldi partzialeko kontratuetan, urteko zenbaketan lanaldiak astean hamar ordu baino gutxiago ez duen kasuetan,





empresario podrá, en cualquier momento, ofrecer al trabajador la realización de horas complementarias de aceptación voluntaria, cuyo número no podrá superar el quince por ciento, ampliables al treinta por ciento por convenio colectivo, de las horas ordinarias objeto del contrato.

La negativa del trabajador a la realización de estas horas no constituirá conducta laboral sancionable.

Estas horas complementarias no se computarán a efectos de los porcentajes de horas complementarias pactadas que se establecen en la letra c).

h) La realización de horas complementarias habrá de respetar, en todo caso, los límites en materia de jornada y descansos establecidos en los artículos 34.3 y 4; 36.1 y 37.1.

i) Las horas complementarias efectivamente realizadas se retribuirán como ordinarias, computándose a efectos de bases de cotización a la Seguridad Social y periodos de carencia y bases reguladoras de las prestaciones.

A tal efecto, el número y retribución de las horas complementarias realizadas se deberá recoger en el recibo individual de salarios y en los documentos de cotización a la Seguridad Social.

6.

Para que el trabajador pueda acceder a la jubilación parcial, en los términos establecidos en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social y demás disposiciones concordantes, deberá acordar con su empresa una reducción de jornada y de salario de entre un mínimo del veinticinco por ciento y un máximo del cincuenta por ciento y la empresa deberá concertar simultáneamente un contrato de relevo, de acuerdo con lo establecido en el apartado siguiente, con objeto de sustituir la jornada de trabajo dejada vacante por el trabajador que se jubila parcialmente.

También se podrá concertar el contrato de relevo para sustituir a los trabajadores que se jubilen parcialmente después de haber cumplido la edad de jubilación ordinaria que corresponda conforme a lo establecido en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

La reducción de jornada y de salario podrá alcanzar el setenta y cinco por ciento cuando el contrato de relevo se concierte a jornada completa y con duración indefinida, siempre que el trabajador cumpla los requisitos establecidos en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

empresaburuak langileari aldi oro eskaini ahalko dio borondatezko ordu osagarriak egiteko aukera, kontratuan hitzartutako ordu arrunten ehuneko hamabost gainditu gabe, nahiz eta hitzarmen kolektibo bidez ehuneko hogeita hamarrera emendatu ahalko den.

Langileak ordu horiek egiteari uko egitea ez da lan-arloko zehapena eragiteko moduko gertakaria izango.

Ordu osagarri horiek ez dira zenbatuko c) letran xedatutako ordu osagarri hitzartuen ehunekoetan.

h) Ordu osagarriak egiterakoan, betiere bete beharko dira lege honetako ondorengo zenbakietan lanaldiari eta atsedenei buruz ezarritako mugak: 34. artikulua 3. eta 4. zenbakiak, 36. artikulua 1. zenbakia eta 37. artikulua 1. zenbakia.

i) Benetan betetako ordu osagarriak ordu arruntak ordaintzen diren moduan ordainduko dira, eta Gizarte Segurantzako kotizazioen oinarrietarako eta gabealdietarako eta laguntzen oinarri arautzaileetarako ere zenbatuko dira.

Horretarako, sartutako ordu osagarrien kopurua eta horiengatik eskuratutako lansariak soldataren banakako ordainagirian agertu beharko dira, baita Gizarte Segurantzari kotizatutakoaren berri ematen duten agirietan ere.

6.

Langileak erretiro partziala hartu ahal izan dezan, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean eta baterako gainerako xedapenetan ezarritako moduan, enpresarekin lanaldiaren eta soldataren murrizketa bat adostu beharko du, gutxienez ehuneko hogeita bostekoa eta gehienez ehuneko berrogeita hamarrekoa, eta enpresak aldi berean txanda-kontratu bat hitzartu beharko du, hurrengo zenbakian xedatutakoari jarraikiz, erretiro partziala hartu behar duen langileak bete gabe utzitako lanaldia ordeztzeko.

Halaber, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean ezarritako adina bete ondoren erretiro partziala hartzen duten langileak ordezkatzeko ere hitzartu ahal izango da txanda-kontratu.

Lanaldiaren eta soldataren murrizketa ehuneko hirurogeita hamabostekoa izan ahalko da txanda-kontratu lanaldi osorako eta iraupen mugagabearekin hitzartzen bada, betiere langileak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginean ezarritako betekizunak betetzen baditu.





La ejecución de este contrato de trabajo a tiempo parcial y su retribución serán compatibles con la pensión que la Seguridad Social reconozca al trabajador en concepto de jubilación parcial.

La relación laboral se extinguirá al producirse la jubilación total del trabajador.

7.

El contrato de relevo se ajustará a las siguientes reglas:

a) Se celebrará con un trabajador en situación de desempleo o que tuviese concertado con la empresa un contrato de duración determinada.

b) Salvo lo establecido en los dos párrafos siguientes, la duración del contrato de relevo que se celebre como consecuencia de una jubilación parcial tendrá que ser indefinida o, como mínimo, igual al tiempo que falte al trabajador sustituido para alcanzar la edad de jubilación ordinaria que corresponda conforme a lo establecido en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

Si, al cumplir dicha edad, el trabajador jubilado parcialmente continuase en la empresa, el contrato de relevo que se hubiera celebrado por duración determinada podrá prorrogarse mediante acuerdo con las partes por periodos anuales, extinguiéndose en todo caso al finalizar el periodo correspondiente al año en el que se produzca la jubilación total del trabajador relevado.

En el supuesto previsto en el párrafo segundo del apartado 6, el contrato de relevo deberá alcanzar al menos una duración igual al resultado de sumar dos años al tiempo que le falte al trabajador sustituido para alcanzar la edad de jubilación ordinaria que corresponda conforme al texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

En el supuesto de que el contrato se extinga antes de alcanzar la duración mínima indicada, el empresario estará obligado a celebrar un nuevo contrato en los mismos términos del extinguido, por el tiempo restante.

En el caso del trabajador jubilado parcialmente después de haber cumplido la edad de jubilación ordinaria prevista en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, la duración del contrato de relevo que podrá celebrar la empresa para sustituir la parte de jornada dejada vacante por el mismo podrá ser indefinida o anual.

En este segundo supuesto, el contrato se prorrogará automáticamente por periodos anuales, extinguiéndose en todo caso al finalizar el periodo correspondiente al año en que se produzca la jubilación total del trabajador relevado.

Lanaldi partzialeko lan-kontratu hori egitea eta haren ordainsaria bateragarriak izango dira Gizarte Segurantzak erretiro partzialaren kontzeptuan langileari aitortzen dion pentsioarekin.

Lan-harremana langileak erretiro osoa hartzean azkenduko da.

7.

Txanda-kontratueta arau hauek bete beharko dira:

a) Lanik gabe dagoen langile batekin edo enpresarekin iraupen jakineko kontratu bat hitzartua duenarekin egingo da.

b) Hurrengo bi lerroketan ezarritakoa salbuetsita, erretiro partzial baten ondorioz egindako txanda-kontratu iraupen mugagabekoa izan beharko da edo, gutxienez ere, ordeztutako langileari Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean ezarritakoaren arabera erretiro-adin arruntera iritsi arte geratzen zaion denboraren adinakoa.

Adin hori betetzean, erretiro partziala hartu duen langileak enpresan jarraituz gero, iraupen mugaturako egin den txanda-kontratu luzatu ahal izango da, alderdiekin urtebeteko aldietarako egindako akordio bidez, nolahi ere azkendu egingo da ordeztutako langileak erretiro osoa hartzen duen urtea bukatzean.

Txanda-kontratuaren iraupena, 6. zenbakiaren bigarren lerrokadan xedatutako kasuan, hau izango da: ordeztutako langileari Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginearen arabera aipatutako erretiro-adin arruntera iristeko geratzen zaion denborari bi urte gehituta ateratzen dena.

Kontratu adierazitako gutxieneko iraupenera iritsi aurretik azkentzen bada, enpresaburuak beste kontratu bat egin beharko du azkendutakoaren baldintza berekin, geratzen den denbora iraungo duena.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean aurreikusitako erretiratutako langilearen kasuan, langile horrek hutsik utzitako lanaldi zatia betetzeko enpresak egin ahal izango duen txanda-kontratuaren iraupena mugagabea edo urtebetekoa izan ahalko da.

Bigarren kasu horretan, kontratu automatikoki luzatuko da urtebeteko epeetan; nolahi ere, azkendu egingo da ordeztutako langileak erretiro osoa hartzen duen urteari dagokion aldia amaitutakoan.



c) Salvo en el supuesto previsto en el párrafo segundo del apartado 6, el contrato de relevo podrá celebrarse a jornada completa o a tiempo parcial.

En todo caso, la duración de la jornada deberá ser, como mínimo, igual a la reducción de jornada acordada por el trabajador sustituido.

El horario de trabajo del trabajador relevista podrá completar el del trabajador sustituido o simultanearse con él.

d) El puesto de trabajo del trabajador relevista podrá ser el mismo del trabajador sustituido.

En todo caso, deberá existir una correspondencia entre las bases de cotización de ambos, en los términos previstos en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

e) En la negociación colectiva se podrán establecer medidas para impulsar la celebración de contratos de relevo.

### Artículo 13. Trabajo a distancia.

1.

Tendrá la consideración de trabajo a distancia aquel en que la prestación de la actividad laboral se realice de manera preponderante en el domicilio del trabajador o en el lugar libremente elegido por este, de modo alternativo a su desarrollo presencial en el centro de trabajo de la empresa.

2.

El acuerdo por el que se establezca el trabajo a distancia se formalizará por escrito.

Tanto si el acuerdo se estableciera en el contrato inicial como si fuera posterior, le serán de aplicación las reglas contenidas en el artículo 8.4 para la copia básica del contrato de trabajo.

3.

Los trabajadores a distancia tendrán los mismos derechos que los que prestan sus servicios en el centro de trabajo de la empresa, salvo aquellos que sean inherentes a la realización de la prestación laboral en el mismo de manera presencial.

En especial, el trabajador a distancia tendrá derecho a percibir, como mínimo, la retribución total establecida conforme a su grupo profesional y funciones.

El empresario deberá establecer los medios necesarios para asegurar el acceso efectivo de estos trabajadores a la formación profesional para el empleo, a fin de favorecer su promoción profesional.

Asimismo, a fin de posibilitar la movilidad y promoción, deberá informar a los trabajadores a distancia de la existencia de puestos de trabajo

c) 6. zenbakiaren bigarren lerrokan aurreikusitako kasuan izan ezik, txanda-kontratua lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa izan ahalko da.

Edozelan ere, lanaldiaren iraupena, gutxienez, ordeztutako langileak erabakitako lanaldiaren murrizketarena izango da.

Txanda hartzen duen langilearen lan-ordutegiak ordeztutako langilearena osatu ahal izango du edo harekin batera aldi berean jardun.

d) Txanda hartzen duen langilearen lanpostua ordeztutako langilearena izan ahalko da.

Nolanahi ere, bien kotizazio-oinarriak bat etorri beharko dira, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean aurreikusitako moduan.

e) Negoziazio kolektiboan txanda-kontratuak egitea bultzatzeko neurriak ezarri ahal izango dira.

### 13. artikulua. Urrutiko lana.

1.

Urrutiko lana deritzo langileak lana nagusiki bere etxean edo berak askatasunez aukeratutako tokian egiteari, enpresaren lantokian bertan egin ordez.

2.

Urrutiko lanari buruzko akordioa idatziz egin beharko da.

Akordioari, kontratuaren hasieran edo gerora sinatua izan, 8.4 artikuluan lan-kontratuaren oinarriko kopiari buruz zehaztutako arauak aplikatuko zaizkio.

3.

Urrutiko langileek enpresaren lantokian aritzen diren langileen eskubide berberak izango dituzte, lantokian bertan lan egitearen berezkoak izan ezik.

Urrutiko langileek beren talde profesionalaren eta funtzioen arabera zehaztutako ordainsari osoa jasotzeko eskubidea izango dute, gutxienez.

Enpresaburuak, langile hauen sustapen profesionala bultzatzearen, beharrezko neurriak ezarri beharko ditu, langile horiei enplegurako lanbide-heziketa jasotzeko daukaten eskubidea bermatzeko.

Halaber, lantokian bertan hutsik dauden eta lantokian bertan bete behar diren lanpostuen berri eman



vacantes para su desarrollo presencial en sus centros de trabajo.

4.

Los trabajadores a distancia tienen derecho a una adecuada protección en materia de seguridad y salud resultando de aplicación, en todo caso, lo establecido en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, y su normativa de desarrollo.

5.

Los trabajadores a distancia podrán ejercer los derechos de representación colectiva conforme a lo previsto en esta ley.

A estos efectos dichos trabajadores deberán estar adscritos a un centro de trabajo concreto de la empresa.

## CAPÍTULO II

### Contenido del contrato de trabajo

#### Sección 1.ª Duración del contrato

##### Artículo 14. Periodo de prueba.

1.

Podrá concertarse por escrito un periodo de prueba, con sujeción a los límites de duración que, en su caso, se establezcan en los convenios colectivos.

En defecto de pacto en convenio, la duración del periodo de prueba no podrá exceder de seis meses para los técnicos titulados, ni de dos meses para los demás trabajadores.

En las empresas de menos de veinticinco trabajadores el periodo de prueba no podrá exceder de tres meses para los trabajadores que no sean técnicos titulados.

En el supuesto de los contratos temporales de duración determinada del artículo 15 concertados por tiempo no superior a seis meses, el periodo de prueba no podrá exceder de un mes, salvo que se disponga otra cosa en convenio colectivo.

El empresario y el trabajador están, respectivamente, obligados a realizar las experiencias que constituyan el objeto de la prueba.

Será nulo el pacto que establezca un periodo de prueba cuando el trabajador haya ya desempeñado las mismas funciones con anterioridad en la empresa, bajo cualquier modalidad de contratación.

2.

Durante el periodo de prueba, el trabajador tendrá los derechos y obligaciones correspondientes al puesto de trabajo que desempeñe como si fuera de plantilla,

beharko die urrutiko langileei, horien mugigarritasuna eta sustapena errazteko.

4.

Urrutiko langileek segurtasun- eta osasun-babes egokia izateko eskubidea dute, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean (azaroaren 8ko 31/1995) eta berau garatzeko araudian ezarritakoa aplikatuko zaie.

5.

Urrutiko langileek ordezkaritza kolektiborako eskubidea izango dute, lege honetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Ondorio horietarako, langile horiek enpresaren lantoki jakin bati atxikita egon beharko dute.

## II. KAPITULUA

### Lan-kontratuaren edukia

#### 1. atala. Kontratuaren iraupena

##### 14. artikulua. Probaldia.

1.

Probaldiak itundu daitezke idatziz, betiere hitzarmen kolektiboetan finkatutako iraupen-mugei lotuta, halakorik badago.

Hitzarmenean itunik ez badago, probaldia ezingo da izan sei hilabetetik gorakoa tituludun teknikarientzat, ez eta bi hilabetetik gorakoa ere beste langileentzat.

Hogeita bost langile baino gutxiagoko enpresetan, aldiz, tituludun teknikari ez diren langileentzako probaldia ezin izango da izan hiru hilabetetik gorakoa.

15. artikulua xedatzen dituen iraupen zehatzeko aldi baterako kontratuen kasuan, sei hilabete baino gehiagorako hitzartu ez badira, probaldiak ezingo du hilabete baino gehiago iraun, non hitzarmen kolektibo bidez besterik xedatzen ez den.

Enpresaburua eta langilea, hurrenez hurren, probaldia osatzen duten esperientziak egitera behartuta daude.

Baliogabea izango da probaldi bat ezartzen duen hitzarmena, baldin eta langileak, lehenago ere, enpresan eginkizun berdinak bete izan baditu, kontratu modu hura edozelakoa izanda ere.

2.

Langileak, probaldian, betetzen duen lanpostuari dagozkion eskubideak eta betebeharrak izango ditu, plantillakoa balitz bezala. Salbuespena izango dira



excepto los derivados de la resolución de la relación laboral, que podrá producirse a instancia de cualquiera de las partes durante su transcurso.

3.

Transcurrido el periodo de prueba sin que se haya producido el desistimiento, el contrato producirá plenos efectos, computándose el tiempo de los servicios prestados en la antigüedad del trabajador en la empresa.

Las situaciones de incapacidad temporal, riesgo durante el embarazo, maternidad, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, riesgo durante la lactancia y paternidad, que afecten al trabajador durante el periodo de prueba, interrumpen el cómputo del mismo siempre que se produzca acuerdo entre ambas partes.

#### **Artículo 15. Duración del contrato.**

1.

El contrato de trabajo podrá concertarse por tiempo indefinido o por una duración determinada.

Podrán celebrarse contratos de duración determinada en los siguientes supuestos:

a) Cuando se contrate al trabajador para la realización de una obra o servicio determinados, con autonomía y sustantividad propia dentro de la actividad de la empresa y cuya ejecución, aunque limitada en el tiempo, sea en principio de duración incierta.

Estos contratos no podrán tener una duración superior a tres años ampliable hasta doce meses más por convenio colectivo de ámbito sectorial estatal o, en su defecto, por convenio colectivo sectorial de ámbito inferior.

Transcurridos estos plazos, los trabajadores adquirirán la condición de trabajadores fijos de la empresa.

Los convenios colectivos sectoriales estatales y de ámbito inferior, incluidos los convenios de empresa, podrán identificar aquellos trabajos o tareas con sustantividad propia dentro de la actividad normal de la empresa que puedan cubrirse con contratos de esta naturaleza.

b) Cuando las circunstancias del mercado, acumulación de tareas o exceso de pedidos así lo exigieran, aun tratándose de la actividad normal de la empresa.

En tales casos, los contratos podrán tener una duración máxima de seis meses, dentro de un

lan-harremanak desegitetik eratorriak, edozein alderdik eskatuta desegin baitaiteke probaldian.

3.

Probaldia amaitu ondoren, inork atzera egin ez badu, kontratua indarrean hasiko da ondorio guztiekin, eta proban igarotako denbora langilearen antzinasunerako zenbatuko da.

Probaldiko denboraren zenbaketa eten egingo da, bi aldeek hala adosten badute, langileak egoera hauetakoren bat nozitzen duenean: aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa, adopzio aurreko zaintza edo harrera, edoskitzaroko arriskua edota aitatasuna.

#### **15. artikulua. Kontratuaren iraupena.**

1.

Lan-kontratua denbora-mugarik gabe edo iraupen mugaturako itundu ahal izango da.

Iraupen mugatuko kontratuak kasu hauetan egin ahal izango dira:

a) Langilea lan edo zerbitzu jakin batzuk aurrera eramateko kontratatzen denean, enpresako jardueraren baitan autonomia eta berezko ezaugarriak izanik, eta lana bukatzeko epea, nahiz eta denboran mugatuta egon, iraupen jakin gabekoa baldin bada.

Halako kontratuek ezin dute hiru urte baino gehiago iraun, baina beste hamabi hilabetez ere luza daitezke, estatuko eremu sektorialeko hitzarmen kolektibo bidez. Hitzarmen hori estatu osorakoa izango da, edo, halakorik ez badago, beste lurralde txikiago baterakoa.

Epe horiek amaitzen direnean, langileak enpresako langile finkoak izango dira.

Estatuko hitzarmen kolektibo sektorialetan eta maila apalagokoetan, horien barruan direla enpresa bakoitzeko hitzarmenak ere, enpresa barruan berezko ezaugarriak dituzten lanak edo eginkizunak zein diren zehaztu beharko da, aipatzen ari garen kontratu motarekin betetzeko modukoak zein diren jakiteko.

b) Merkatuaren gorabeheren eraginez, eta zereginak metatu edo eskabide larregi izatearen eraginez, halako kontratuak egitea beharrezkoa denean, nahiz eta aipatutako lan guztiok enpresaren ohiko jarduerakoak izan.

Halako kasuetan, sei hilabeteko iraupena izan dezakete kontratuek gehienez ere, hamabi



periodo de doce meses, contados a partir del momento en que se produzcan dichas causas.

Por convenio colectivo de ámbito sectorial estatal o, en su defecto, por convenio colectivo sectorial de ámbito inferior, podrá modificarse la duración máxima de estos contratos y el periodo dentro del cual se puedan realizar en atención al carácter estacional de la actividad en que dichas circunstancias se puedan producir.

En tal supuesto, el periodo máximo dentro del cual se podrán realizar será de dieciocho meses, no pudiendo superar la duración del contrato las tres cuartas partes del periodo de referencia establecido ni, como máximo, doce meses.

En caso de que el contrato se hubiera concertado por una duración inferior a la máxima legal o convencionalmente establecida, podrá prorrogarse mediante acuerdo de las partes, por una única vez, sin que la duración total del contrato pueda exceder de dicha duración máxima.

Por convenio colectivo se podrán determinar las actividades en las que puedan contratarse trabajadores eventuales, así como fijar criterios generales relativos a la adecuada relación entre el volumen de esta modalidad contractual y la plantilla total de la empresa.

c) Cuando se trate de sustituir a trabajadores con derecho a reserva del puesto de trabajo, siempre que en el contrato de trabajo se especifique el nombre del sustituido y la causa de sustitución.

2.

Adquirirán la condición de trabajadores fijos, cualquiera que haya sido la modalidad de su contratación, los que no hubieran sido dados de alta en la Seguridad Social, una vez transcurrido un plazo igual al que legalmente se hubiera podido fijar para el periodo de prueba, salvo que de la propia naturaleza de las actividades o de los servicios contratados se deduzca claramente la duración temporal de los mismos, todo ello sin perjuicio de las demás responsabilidades a que hubiere lugar en derecho.

3.

Se presumirán por tiempo indefinido los contratos temporales celebrados en fraude de ley.

4.

Los empresarios habrán de notificar a la representación legal de los trabajadores en las empresas los contratos realizados de acuerdo con las modalidades de contratación por tiempo determinado previstas en este artículo cuando no exista obligación legal de entregar copia básica de los mismos.

hilabeteko aldian, egoera horiek sortzen direnetik kontatzen hasita.

Estatuko eremu sektorialeko hitzarmen kolektiboen eta, halakorik egon ezean, eremu apalagoko hitzarmen kolektibo sektorialen bidez, kontratu-mota horien gehieneko iraupena eta horiek egin ahal izango diren sasoia aldatu ahalko dira, dena delako egoera gertatzeko garai batzuetan izaten den joera kontuan izanda.

Kasu horretan, kontratu horretaz baliatzeko gehieneko denbora-tartea hemezortzi hilabetekoa izango da, eta kontratua ezin izango da epe horren hiru laurdeneko epea baino luzeagoa izan; gehieneko muga hamabi hilabetekoa izango da.

Egindako kontratua lege ezarritako gehieneko muga edo konbentzio ezarritako muga baino laburragoa bada, hura luzatu egin ahal izango da bi aldeek hala erabakitzen badute, baina behin bakarrik. Dena den, kontratuak ezin izango du gehieneko muga baino gehiago iraun.

Hitzarmen kolektiboetan behin-behineko langileak zein jardueratarako kontrata daitezkeen zehaztu ahal izango da, eta horrekin batera, irizpide orokor batzuk ere jarri ahal izango dira enpresa barruan kontratu-mota hori dutenen eta plantilla osoaren artean oreka egokiari eutsi ahal izateko.

c) Lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak ordezkatzeko denean, beti ere lan-kontratuan zehaztuta uzten bada zein den ordezkatuaren izena, eta zein izan den ordezkatzeko arrazoia.

2.

Langileak kontratatze modua edozelakoa izanda ere, langile finko bihurtuko dira lege probaldirako finkatu zitezkeen epearen bestekoa igaro ondoren Gizarte Segurantzaren alta eman gabe daudenak, kontraturiko jardueren edo zerbitzuen izaerak berak zerbitzuok denbora baterako iraupena zutela argi erakusten duenean izan ezik; horrez gain, ez dute indarririk galduko zuzenbidez ezar daitezkeen gainerako erantzukizunek.

3.

Halaber, eta aurreko lerrokadan zehaztutakoari kalterik egin gabe, lan-agintaritzak egoki diren bitartekotza-jarduerak egin ahal izango ditu kontsultaldian, bi alderdiek hala eskatzen diotenean, kaleratze kolektiboak sortutako arazoak konpontzeko.

Xede berberarekin, laguntza ere eman ahal izango du, alderdietako edozeinek eskatuta edo bere ekimenez.

Kontsultaldia amaitutakoan, enpresaburuak emaitzaren berri eman behar dio lan-agintaritzari.

Akordioa lortu bada, haren kopia osoa igorriko dio.

Osterantzean, kaleratze kolektiboaren azken erabakia eta kaleratze kolektiboaren baldintzak jakinarazi beharko dizkie langileen ordezkariari eta lan-agintaritzari.

Baldin eta, kontsultaldian egindako azken bileraz gero hamabost egun igarota, enpresaburuak ez badie langileen ordezkariari eta lan-agintaritzari kaleratze kolektiboari buruzko erabakia jakinarazi, kaleratze kolektiboaren prozedura iraungi egingo da erregelamenduz ezarritako baldintzen arabera.

3.

Langileen ehuneko berrogeita hamarrari eragiten badie kontratua azkentzeak, enpresaren ondasunen salmentaren berri eman behar die enpresaburuak langileen legezko ordezkariari eta eskumena duen agintaritzari, enpresaren ohiko trafikoa osatzen duten ondasunak kanpo utzita.



4.

Alcanzado el acuerdo o comunicada la decisión a los representantes de los trabajadores, el empresario podrá notificar los despidos individualmente a los trabajadores afectados, lo que deberá realizar conforme a lo establecido en el artículo 53.1.

En todo caso, deberán haber transcurrido como mínimo treinta días entre la fecha de la comunicación de la apertura del periodo de consultas a la autoridad laboral y la fecha de efectos del despido.

5.

Los representantes legales de los trabajadores tendrán prioridad de permanencia en la empresa en los supuestos a que se refiere este artículo.

Mediante convenio colectivo o acuerdo alcanzado durante el periodo de consultas se podrán establecer prioridades de permanencia a favor de otros colectivos, tales como trabajadores con cargas familiares, mayores de determinada edad o personas con discapacidad.

6.

La decisión empresarial podrá impugnarse a través de las acciones previstas para este despido.

La interposición de la demanda por los representantes de los trabajadores paralizará la tramitación de las acciones individuales iniciadas, hasta la resolución de aquella.

La autoridad laboral podrá impugnar los acuerdos adoptados en el periodo de consultas cuando estime que estos se han alcanzado mediante fraude, dolo, coacción o abuso de derecho a efectos de su posible declaración de nulidad, así como cuando la entidad gestora de las prestaciones por desempleo hubiese informado de que la decisión extintiva empresarial pudiera tener por objeto la obtención indebida de las prestaciones por parte de los trabajadores afectados por inexistencia de la causa motivadora de la situación legal de desempleo.

7.

La existencia de fuerza mayor, como causa motivadora de la extinción de los contratos de trabajo, deberá ser constatada por la autoridad laboral, cualquiera que sea el número de los trabajadores afectados, previo procedimiento tramitado conforme a lo dispuesto en este apartado y en sus disposiciones de desarrollo reglamentario.

El procedimiento se iniciará mediante solicitud de la empresa, acompañada de los medios de prueba que estime necesarios y simultánea comunicación a los representantes legales de los trabajadores, quienes ostentarán la condición de parte interesada en la totalidad de la tramitación del procedimiento.

4.

Behin akordiora iritsitakoan edo erabakia langileen ordezkarietara jakinarazitakoan, enpresaburuak aukeran izango du kaleratzeak banan-banan jakinaraztea langileei, eta 53.1 artikuluan ezarritakoaren arabera egin beharko du hori.

Nolanahi ere, gutxienez hogeita hamar egun igaro behar dira lan-agintaritzari kontsultaldia ireki dela jakinarazten zaionetik kaleratzea eraginkor izan arte.

5.

Langileen legezko ordezkarietara lehentasuna edukiko dute artikuluan honetan aipatutako kasuetan enpresan jarraitzeko.

Hitzarmen kolektiboen bidez, edo kontsultaldian egindako akordioaren bidez, beste talde batzuetako langileei eman dakieke lanpostuan jarraitzeko lehentasuna; esaterako, familia-kargak dituztenei, adin jakin batetik gorako langileei edota desgaitasuna dutenei.

6.

Enpresaren erabakia kaleratze honetarako aurreikusitako ekintzen bidez aurkaratu daiteke.

Langileen ordezkarietara demanda aurkezten badute, banaka hasitako akzioen izapideak gelditu egingo dira, harik eta hura ebatzi arte.

Lan-agintaritzak aurkaratu egin ahal izango ditu kontsultaldian hartutako erabakiak, iruzur, dolo, hertsapen edo zuzenbide-gehiegikeria bidez hartu direla uste duenean, deuseztat jo daitezkeen, edota langabezia-prestazioak kudeatzen dituen erakundeak adierazten duenean enpresak azkentzeko erabakia hartzearen helburua kaltetutako langileek prestazioak bidegabe jasotzea dela, langabeziaren legezko egoerara eramaten duen arrazoirik ez dagoelako.

7.

Lan-kontratuak ezinbestearen ondorioz azkendu direnean, lan-agintaritzak egiaztatu egin beharko du ezinbeste hori, eragindako langile kopurua edozein izanda ere; horretarako, zenbaki honetan eta garatzeko erregelamenduetan xedatutakoarekin bat datorren prozedura izapidetu beharko du.

Prozedurari enpresaren eskariz eman behar zaio hasiera, eta beharrezko irizitako frogabideak aurkeztu beharko ditu; prozedurari hasiera emateko eskaera egiten duen aldi berean, langileen legezko ordezkarietara jakinarazi egin behar die, alderdi



La resolución de la autoridad laboral se dictará, previas las actuaciones e informes indispensables, en el plazo de cinco días desde la solicitud y deberá limitarse, en su caso, a constatar la existencia de la fuerza mayor alegada por la empresa, correspondiendo a esta la decisión sobre la extinción de los contratos, que surtirá efectos desde la fecha del hecho causante de la fuerza mayor.

La empresa deberá dar traslado de dicha decisión a los representantes de los trabajadores y a la autoridad laboral.

La autoridad laboral que constate la fuerza mayor podrá acordar que la totalidad o una parte de la indemnización que corresponda a los trabajadores afectados por la extinción de sus contratos sea satisfecha por el Fondo de Garantía Salarial, sin perjuicio del derecho de este a resarcirse del empresario.

8.

Las obligaciones de información y documentación previstas en este artículo se aplicarán con independencia de que la decisión relativa a los despidos colectivos haya sido tomada por el empresario o por la empresa que ejerza el control sobre él.

Cualquier justificación del empresario basada en el hecho de que la empresa que tomó la decisión no le ha facilitado la información necesaria no podrá ser tomada en consideración a tal efecto.

9.

Cuando se trate de procedimientos de despidos colectivos de empresas no incursas en procedimiento concursal, que incluyan trabajadores con cincuenta y cinco o más años de edad que no tuvieren la condición de mutualistas el 1 de enero de 1967, existirá la obligación de abonar las cuotas destinadas a la financiación de un convenio especial respecto de los trabajadores anteriormente señalados en los términos previstos en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

10.

La empresa que lleve a cabo un despido colectivo que afecte a más de cincuenta trabajadores deberá ofrecer a los trabajadores afectados un plan de recolocación externa a través de empresas de recolocación autorizadas.

Dicho plan, diseñado para un periodo mínimo de seis meses, deberá incluir medidas de formación y orientación profesional, atención personalizada al trabajador afectado y búsqueda activa de empleo.

interesdun izango baitira prozeduraren izapide guztietan.

Eskabidea egiten denetik bost eguneko epean emango du erabakia lan-agintaritzak, premiazkoak diren jarduketak egin eta irizpenak jaso ondoren, eta enpresak argudiatutako ezinbestekoa dagoen egiaztatza mugatu beharko da. Enpresari dagokio kontratuak azkentzeari buruzko erabakia hartzea, eta ezinbestea sorrarazi zuen egintzaren egun beretik izango ditu ondorioak.

Enpresak erabaki horren berri eman beharko die langileen ordezkariari eta lan-agintaritzari.

Ezinbestea egon dela egiaztatzen duen lan-agintaritzak erabaki ahal izango du kontratuak azkendu zaizkien langileei dagokien kalte-ordain osoa edo zati bat Soldatak Bermatzeko Funtsak ordaindu behar duela; nolana ere, Funtsak eskubidea izango du kopuru hori enpresaburuari ordainarazteko.

8.

Informazioari eta agiriei buruz artikulua honetan aurreikusitako betebeharrak beti aplikatu behar dira, bai kaleratze kolektiboari buruzko erabakia enpresaburuak berak hartutakoa izan, zein enpresaburuaren kontrola egiten duen enpresak hartutakoa izan.

Baldin eta enpresaburuak, erabakia hartu duen enpresak ez diola beharrezkoa zuen informaziorik eman esanez, zurigarriak aurkezten baditu, ezin izango dira kontuan hartu ondorio horietarako.

9.

Konkurto-prozeduran sartuta ez dauden enpresen kaleratze kolektiboaren prozeduren kasuan, eta enpresa horietan berrogeita hamabost urte edo gehiagoko langileak badaude, 1967ko urtarrilaren 1ean mutualista ez zirenak, langile horientzat hitzarmen berezi bat finantzatzeko kuotak ordaindu beharra egongo da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginean aurreikusitako moduan.

10.

Enpresak berrogeita hamar langile baino gehiago kaleratu dituen kaleratze kolektiboaren bidez, kanpoan birkokatzerako plana eskaini beharko die langile horiei, baimendutako birkokatze-enpresen bidez.

Plana gutxienez sei hilerako diseinatuko da, eta lanbide-heziketako, lanbide-orientazioko, arreta pertsonalizatuko eta enplegu-bilaketa aktiboko neurriak jaso beharko ditu.





En todo caso, lo anterior no será de aplicación en las empresas que se hubieran sometido a un procedimiento concursal.

El coste de la elaboración e implantación de dicho plan no recaerá en ningún caso sobre los trabajadores.

La autoridad laboral, a través del servicio público de empleo competente, verificará la acreditación del cumplimiento de esta obligación y, en su caso, requerirá a la empresa para que proceda a su cumplimiento.

Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior y de las responsabilidades administrativas correspondientes, el incumplimiento de la obligación establecida en este apartado o de las medidas sociales de acompañamiento asumidas por el empresario, podrá dar lugar a la reclamación de su cumplimiento por parte de los trabajadores.

11.

Las empresas que realicen despidos colectivos de acuerdo con lo establecido en este artículo, y que incluyan a trabajadores de cincuenta o más años de edad, deberán efectuar una aportación económica al Tesoro Público de acuerdo con lo establecido legalmente.

#### **Artículo 52. Extinción del contrato por causas objetivas.**

El contrato podrá extinguirse:

a) Por ineptitud del trabajador conocida o sobrevinida con posterioridad a su colocación efectiva en la empresa.

La ineptitud existente con anterioridad al cumplimiento de un periodo de prueba no podrá alegarse con posterioridad a dicho cumplimiento.

b) Por falta de adaptación del trabajador a las modificaciones técnicas operadas en su puesto de trabajo, cuando dichos cambios sean razonables.

Previamente el empresario deberá ofrecer al trabajador un curso dirigido a facilitar la adaptación a las modificaciones operadas.

El tiempo destinado a la formación se considerará en todo caso tiempo de trabajo efectivo y el empresario abonará al trabajador el salario medio que viniera percibiendo.

La extinción no podrá ser acordada por el empresario hasta que hayan transcurrido, como mínimo, dos meses desde que se introdujo la modificación o desde que finalizó la formación dirigida a la adaptación.

Konkurto-prozeduran dauden enpresei ez zaie aurrekoa aplikatuko.

Plana prestatzeak eta ezartzeak eragindako kostua ez da, inola ere, langileen kontura izango.

Lan-agintaritzak, eskumena duen enplegu-zerbitzu publikoaren bidez, enpresak betebeharrak bete behar ditu, eta, hala bada, egiaztatuko du, eta, hala bada, egiaztatuko dio.

Aurreko lerrokadan zehaztutakoari eta dagozkion administrazio-erantzukizunak alde batera utzi gabe, enpresaburuak ez badu zenbaki honetan zehaztutako betebeharrak betetzen, edo ez baditu bere gain hartutako laguntzeko neurri sozialak ezartzen, langileek bete ditzala eskatu ahal izango diote.

11.

Artikulu honetan zehaztutakoari jarraikiz kaleratze kolektiboak egiten dituzten enpresek, eta kaleratutako langileen artean berrogeita hamar urteko edo gehiagokoak badaude, ekarpen ekonomikoa egin beharko diote Altxor Publikoari, legean zehaztutakoarekin bat.

#### **52. artikulua. Arrazoi objektiboak direla eta, kontratua azkentzea**

Kontratua arrazoi hauengatik azkendu daiteke:

a) Langilea enpresan sartu eta gero ezagutu edo agertu zaion gauzaezagatik.

Probaldia egin aurretik izandako gauzaeza ezin izango da alegatu probaldia egin eta gero.

b) Langilea ez bada egokitu bere lanpostuan gertatutako aldaketa teknikoetara, baldin eta aldaketa horiek arrazoizkoak badira.

Aldez aurretik, enpresaburuak aldaketetara egokitzeko ikastaroa eskaini beharko dio langileari.

Prestakuntzan emandako denbora lanean benetan emandako denboratzat joko da, eta enpresaburuak jasotzen ari den batez besteko soldata ordaindu beharko dio langileari.

Enpresaburuak kontratua azkentzea erabaki ahal izateko, gutxienez bi hilabete igaro beharko dira aldaketa gertatu zenetik edo egokitzera zuzendutako prestakuntza amaitu zenetik.



c) Cuando concurra alguna de las causas previstas en el artículo 51.1 y la extinción afecte a un número inferior al establecido en el mismo.

Los representantes de los trabajadores tendrán prioridad de permanencia en la empresa en el supuesto al que se refiere este apartado.

d) Por faltas de asistencia al trabajo, aun justificadas pero intermitentes, que alcancen el veinte por ciento de las jornadas hábiles en dos meses consecutivos siempre que el total de faltas de asistencia en los doce meses anteriores alcance el cinco por ciento de las jornadas hábiles, o el veinticinco por ciento en cuatro meses discontinuos dentro de un periodo de doce meses.

No se computarán como faltas de asistencia, a los efectos del párrafo anterior, las ausencias debidas a huelga legal por el tiempo de duración de la misma, el ejercicio de actividades de representación legal de los trabajadores, accidente de trabajo, maternidad, riesgo durante el embarazo y la lactancia, enfermedades causadas por embarazo, parto o lactancia, paternidad, licencias y vacaciones, enfermedad o accidente no laboral cuando la baja haya sido acordada por los servicios sanitarios oficiales y tenga una duración de más de veinte días consecutivos, ni las motivadas por la situación física o psicológica derivada de violencia de género, acreditada por los servicios sociales de atención o servicios de Salud, según proceda.

Tampoco se computarán las ausencias que obedezcan a un tratamiento médico de cáncer o enfermedad grave.

e) En el caso de contratos por tiempo indefinido concertados directamente por entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de planes y programas públicos determinados, sin dotación económica estable y financiados por las Administraciones Públicas mediante consignaciones presupuestarias o extrapresupuestarias anuales consecuencia de ingresos externos de carácter finalista, por la insuficiencia de la correspondiente consignación para el mantenimiento del contrato de trabajo de que se trate.

Cuando la extinción afecte a un número de trabajadores igual o superior al establecido en el artículo 51.1 se deberá seguir el procedimiento previsto en dicho artículo.

c) Lege honetako 51.1 artikuluan jasotako arrazoiren bat gertatzen bada, eta kontratua azkentzeak artikuluko horretan zehaztutako langile kopuruari baino kopuru txikiagori eragiten badio.

Langileen legezko ordezkariak lehenetsuna edukiko dute enpresan jarraitzeko, zenbaki honetan aipatutako kasuetan.

d) Tarteka lanera ez joateagatik, nahiz eta hutsegitea justifikatuta egon, baldin eta elkarren segidako bi hilabetetan lanegunetako ehuneko hogeira iristen badira hutsegiteak –betiere, aurreko hamabi hilabeteetako hutsegiteak lanegunen ehuneko bostera iristen direla–, edota, hamabi hilabeteko aldian, solteko lau hilabetetan ehuneko hogeita bostera iristen badira.

Aurreko lerrokadaren ondorioetarako, honako kasu hauek ez dira laneko hutsegitezat joko: legezko grebategatik egindakoak, grebak iraun beste denboran; langileen legezko ordezkarietako jarduerak gauzatzean egindakoak; laneko istripuaren, amatasunaren, haurdunaldiko edo edoskitzaroko arriskuaren ondorio direnak; haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitzeak eragindako gaixotasunen ondorio direnak; aitatasunak, lizentziak edo oporrek eragindakoak; ez eta lanetik kanpoko gaixotasunak edo istripuak eragindakoak ere, baja osasun-zerbitzu ofizialek agindu dutenean, eta elkarren segidako hogeiki egun baino gehiagoko iraupena duenean. Ez dira laneko hutsegitezat joko, halaber, genero-indarkeriak eragindako egoera fisiko edo psikologikoaren ondorio direnak, indarkeria hori arretako gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek egiaztatu dutenean, kasuan-kasuan.

Minbiziaren edo gaixotasun larri baten mediku-tratamenduarekin lotutako absentziak ere ez dira hutsegitezat joko.

e) Irabazi-asmorik gabeko erakundeek zuzenean hitzartutako iraupen mugagabeko kontratuen kasuan, baldin eta plan eta programa publiko jakin batzuk gauzatzeko badira, zuzkidura ekonomiko egonkorrik gabeak, eta administrazio publikoek finantzatzen badituzte, xede finalista duten kanpo-iturri batzuen ondoriozko urteroko aurrekontu-esleipenen edo bestelako esleipenen bidez, dagokion esleipena ez delako nahikoa lan-kontratuari eusteko.

Lege honen 51.1 artikuluan zehaztutako langile kopuruari edo gehiagori azkendu bazaie kontratua, artikuluko horretan bertan zehaztutako prozedura jarraitu beharko da.





Será también nula la decisión extintiva en los siguientes supuestos:

a) La de los trabajadores durante los periodos de suspensión del contrato de trabajo por maternidad, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, paternidad, riesgo durante el embarazo o riesgo durante la lactancia natural a que se refieren los artículos 45.1.d) y e) o por enfermedades causadas por embarazo, parto o lactancia natural, o la notificada en una fecha tal que el plazo de preaviso concedido finalice dentro de dichos periodos.

b) La de las trabajadoras embarazadas, desde la fecha de inicio del embarazo hasta el comienzo del periodo de suspensión a que se refiere la letra a); la de los trabajadores que hayan solicitado uno de los permisos a los que se refieren los artículos 37.4, 5 y 6, o estén disfrutando de ellos, o hayan solicitado o estén disfrutando la excedencia prevista en el artículo 46.3; y la de las trabajadoras víctimas de violencia de género por el ejercicio de los derechos de reducción o reordenación de su tiempo de trabajo, de movilidad geográfica, de cambio de centro de trabajo o de suspensión de la relación laboral en los términos y condiciones reconocidos en esta ley.

c) La de los trabajadores después de haberse reintegrado al trabajo al finalizar los periodos de suspensión del contrato por maternidad, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento o paternidad a que se refiere el artículo 45.1.d), siempre que no hubieran transcurrido más de nueve meses desde la fecha de nacimiento, adopción, delegación de guarda con fines de adopción o acogimiento del hijo o del menor.

Lo establecido en las letras anteriores será de aplicación, salvo que, en esos casos, se declare la procedencia de la decisión extintiva por motivos no relacionados con el embarazo o con el ejercicio del derecho a los permisos y excedencia señalados.

La decisión extintiva se considerará procedente siempre que se acredite la concurrencia de la causa en que se fundamentó la decisión extintiva y se hubiesen cumplido los requisitos establecidos en el apartado 1 de este artículo.

En otro caso se considerará improcedente.

No obstante, la no concesión del preaviso o el error excusable en el cálculo de la indemnización no determinará la improcedencia del despido, sin perjuicio de la obligación del empresario de abonar los salarios correspondientes a dicho periodo o al pago de la indemnización en la cuantía correcta, con independencia de los demás efectos que procedan.

Halaber, erabaki azkentzailea deuseza izango da honako kasu hauetan:

a) Lege honen 45.1.d) eta e) letretan aipatutako lan-kontratuaren etenaldietan dauden langileei dagokiena (amatasun, adopzio, adopzio aurreko zaintza, harrera, aitasun, haurdunaldiko arrisku edo edoskitzaroko arriskuagatik) edota haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitze naturalak eragindako gaixotasunagatik lan-kontratuaren etenaldian daudenei dagokiena, edo emandako aurreabisu-epea aldi horietan amaitzen dela jakinarazitakoa.

b) Erabaki azkentzailea hartzen denean haurdun dauden langileei dagokiena, haurdunaldiaren hasieratik a) letrak aipatzen duen etenaldia hasi arte; 37. artikulua 4., 5. eta 6. zenbakiek jasotzen dituzten baimenetako bat eskatu duten edo baimen hori duten langileei dagokiena edota 46.3. artikuluan aurreikusitako eszedentzia eskatu eta horretan daudenei dagokiena; eta genero-indarkeriaren biktima diren langileei dagokiena, lan-denbora murriztu edo berrantolatze, mugigarritasun geografikorako, lantokiz aldatzeko edo lan-harremana eteteko eskubideak egikaritzeagatik, lege honetan aitortutako moduan eta baldintzekin.

c) Lege honen 45.1.d) artikuluan aipatutako amatasunaren, adopzioaren, adopzio aurreko zaintzaren zein harreraren edo aitasunaren ondoriozko kontratu-etenaldiak amaitu ostean lanera itzultako langileei dagokiena, betiere bederatzi hilabete igaro ez badira seme-alaba edo adingabea jaio, adoptatu, haren zaintza adoptatzeko asmoz eskuordetu edo hartu denetik.

Aurreko letretan ezarritakoa aplikatuko da, salbu eta kasu horietan erabaki azkentzailearen bidezotasuna adierazten denean, haurdunaldiarekin edo baimenetarako eta eszedentziarako eskubidea egikaritzearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Azkentzeko erabakia bidezkotzat joko da, baldin eta erabaki hori hartzeko oinarri izan zen arrazoa benetan gertatu dela egiaztatzen bada, eta artikulua honetako 1. zenbakian jasotako betekizunak bete badira.

Kontrako kasuan, azkentzeko erabakia bidegabea izango da.

Nolanahi ere, aurreabisua ez emateak edo kalte-ordainaren kalkuluan akats barkagarria egin izanak ez du ekarriko kaleratzea bidegabea izaterik; hala ere, enpresaburuak obligazioa izango du epe horretako soldatak ordaintzeko edo kalte-ordainari dagokion kopuru bidezkoa ordaintzeko, kasu



5.

La calificación por la autoridad judicial de la nulidad, procedencia o improcedencia de la decisión extintiva producirá iguales efectos que los indicados para el despido disciplinario, con las siguientes modificaciones:

- a) En caso de procedencia, el trabajador tendrá derecho a la indemnización prevista en el apartado 1, consolidándola de haberla recibido, y se entenderá en situación de desempleo por causa a él no imputable.
- b) Si la extinción se declara improcedente y el empresario procede a la readmisión, el trabajador habrá de reintegrarle la indemnización percibida.

En caso de sustitución de la readmisión por compensación económica, se deducirá de esta el importe de dicha indemnización.

#### **Artículo 54. Despido disciplinario.**

1.

El contrato de trabajo podrá extinguirse por decisión del empresario, mediante despido basado en un incumplimiento grave y culpable del trabajador.

2.

Se considerarán incumplimientos contractuales:

- a) Las faltas repetidas e injustificadas de asistencia o puntualidad al trabajo.
- b) La indisciplina o desobediencia en el trabajo.
- c) Las ofensas verbales o físicas al empresario o a las personas que trabajan en la empresa o a los familiares que convivan con ellos.
- d) La transgresión de la buena fe contractual, así como el abuso de confianza en el desempeño del trabajo.
- e) La disminución continuada y voluntaria en el rendimiento de trabajo normal o pactado.
- f) La embriaguez habitual o toxicomanía si repercuten negativamente en el trabajo.
- g) El acoso por razón de origen racial o étnico, religión o convicciones, discapacidad, edad u orientación sexual y el acoso sexual o por razón de sexo al empresario o a las personas que trabajan en la empresa.

horretan egokitzen diren ondorioak direnak direla ere.

5.

Agintaritza judizialaren eskuetan dago azkentzeko erabakia deuseza bidezkoa edo bidegabea den kalifikatzea, eta diziplinazko kaleratze-kasuetarako adierazitako moduko ondorioak sortuko ditu, aldaketa hauek kontuan hartuta:

- a) Bidezkoa bada, 1. zenbakian aurreikusitako kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du langileak, eta jasota badauka, finkatu edo kontsolidatu egingo du; langilea langabezia egoeran geratuko da, berari egotz ezin dakioken arrazoiagatik.
- b) Bidegabea bada kontratua azkentzea, eta enpresaburuak lanean hartzen badu berriz, jasotako kalte-ordaina itzuli beharko dio langileak enpresaburuari.

Lanean berriz hartu ordez, konpentsazioren bat ematen badio dirutan, kalte-ordainaren zenbatekoa gutxitu egingo da hortik.

#### **54. artikulua. Diziplinazko kaleratzea.**

1.

Enpresaburuaren erabakiz azkendu daiteke lan-kontratua, langilearen ez-betetze larri eta errudunean oinarritutako kaleratzearen bidez.

2.

Kontratuaren ez-betetzetat hauek hartzen dira:

- a) Sarri eta arrazoirik gabe lanera ez joatea, edo berandu iristea.
- b) Lanean diziplinarik ez izatea edo desobeditzea.
- c) Enpresaburuari edo enpresan lan egiten duten pertsoneri, edo horiekin bizi diren senitartekoei berbazko irainak esan edo irain fisikoak egitea.
- d) Kontratuko onustea haustea, eta lana betetzean konfiantza-abusuz jokatzeko.
- e) Ohiko edo itundutako lan-errendimendua nahita eta jarraian gutxitzea.
- f) Sarri mozkortuta edo toxikomaniak jota egotea, lanerako ondorio negatiboak baditu.
- g) Enpresaburuaren edo enpresan lan egiten duten pertsonen aurkako jazarpena, arrazarengatik, etniarengatik, erlijioarengatik edo sinesmenengatik, desgaitasunarengatik, adinarengatik zein sexu-joerarengatik, eta sexu-jazarpena zein sexuan oinarritutakoa.





## Artículo 55. Forma y efectos del despido disciplinario.

1.

El despido deberá ser notificado por escrito al trabajador, haciendo figurar los hechos que lo motivan y la fecha en que tendrá efectos.

Por convenio colectivo podrán establecerse otras exigencias formales para el despido.

Cuando el trabajador fuera representante legal de los trabajadores o delegado sindical procederá la apertura de expediente contradictorio, en el que serán oídos, además del interesado, los restantes miembros de la representación a que perteneciere, si los hubiese.

Si el trabajador estuviera afiliado a un sindicato y al empresario le constase, deberá dar audiencia previa a los delegados sindicales de la sección sindical correspondiente a dicho sindicato.

2.

Si el despido se realizara inobservando lo establecido en el apartado anterior, el empresario podrá realizar un nuevo despido en el que cumpla los requisitos omitidos en el precedente.

Dicho nuevo despido, que solo surtirá efectos desde su fecha, solo cabrá efectuarlo en el plazo de veinte días, a contar desde el siguiente al del primer despido.

Al realizarlo, el empresario pondrá a disposición del trabajador los salarios devengados en los días intermedios, manteniéndole durante los mismos en alta en la Seguridad Social.

3.

El despido será calificado como procedente, improcedente o nulo.

4.

El despido se considerará procedente cuando quede acreditado el incumplimiento alegado por el empresario en su escrito de comunicación.

Será improcedente en caso contrario o cuando en su forma no se ajustara a lo establecido en el apartado 1.

5.

Será nulo el despido que tenga por móvil alguna de las causas de discriminación prohibidas en la Constitución o en la ley, o bien se produzca con violación de derechos fundamentales y libertades públicas del trabajador.

## 55. artikulua. Diziplinazko kaleratze-moduak, eta kaleratzearen ondorioak.

1.

Idatziz jakinarazi behar zaio langileari kaleratzearen berri, eta arrazoi izan diren egintzak eta ondorioak sortzeko eguna zein diren azaldu beharko da.

Hitzarmen kolektiboetan eska daitezke beste eskakizun formal batzuk ere kaleratze kasuetarako.

Langilea langileen legezko ordezkari bat edo sindikatuetakoa delegatu bat bada, kontrako espediente ireki ahal izango da, eta bertan, interesdunaz gain, bere ordezkartzako beste kideei ere entzungo zaie, beste kiderik badago.

Langilea sindikaturen batean afiliatuta badago, eta enpresaburuak hori badaki, aurrez sindikatu horretako sail sindikaleko ordezkari entzun beharko die.

2.

Aurreko zenbakian ezarritakoa bete gabe egiten bada kaleratzea, enpresaburuak beste kaleratze berri bat egin dezake, baina aurrekoan bete gabe utzitako betekizunak beteta.

Kaleratze berri hori lehenengoa egin zenetik eta hurrengo hogeiegunen barruan baino ezin izango da egin, eta egun horretatik izango ditu ondorioak.

Bigarrena egiterakoan, bada, tarteko egunetan zordundutako soldatak jarri behar ditu enpresaburuak langilearen eskura, eta alta emanda eduki behar du Gizarte Segurantzaren egun horietan.

3.

Kaleratzea bidezkoa, bidegabekoa edo deuseza dela joko da.

4.

Kaleratzea bidezkotzat joko da baldin eta, enpresaburuak jakinarazpen-idatzian alegatutako moduan, kontratua bete eza egiaztatuta gelditzen bada.

Kontrako kasuan bidegabekoa izango da, eta baita 1. zenbakian ezarritako formari lotzen ez bazaio ere.

5.

Deuseza izango da Konstituzioak edo legeek debekatuta duten bazterkeriazko arrazoiren bat oinarri hartuz edo langilearen oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak urratuz egiten den kaleratzea.



Será también nulo el despido en los siguientes supuestos:

a) El de los trabajadores durante los periodos de suspensión del contrato de trabajo por maternidad, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, paternidad, riesgo durante el embarazo o riesgo durante la lactancia natural a que se refieren los artículos 45.1.d) y e) o por enfermedades causadas por embarazo, parto o lactancia natural, o el notificado en una fecha tal que el plazo de preaviso concedido finalice dentro de dichos periodos.

b) El de las trabajadoras embarazadas, desde la fecha de inicio del embarazo hasta el comienzo del periodo de suspensión a que se refiere la letra a); el de los trabajadores que hayan solicitado uno de los permisos a los que se refieren los artículos 37.4, 5 y 6, o estén disfrutando de ellos, o hayan solicitado o estén disfrutando la excedencia prevista en el artículo 46.3; y el de las trabajadoras víctimas de violencia de género por el ejercicio de los derechos de reducción o reordenación de su tiempo de trabajo, de movilidad geográfica, de cambio de centro de trabajo o de suspensión de la relación laboral en los términos y condiciones reconocidos en esta ley.

c) El de los trabajadores después de haberse reintegrado al trabajo al finalizar los periodos de suspensión del contrato por maternidad, adopción, delegación de guarda, acogimiento, o paternidad a que se refiere el artículo 45.1.d), siempre que no hubieran transcurrido más de nueve meses desde la fecha de nacimiento, adopción, delegación de guarda o acogimiento del hijo o del menor.

Lo establecido en las letras anteriores será de aplicación, salvo que, en esos casos, se declare la procedencia del despido por motivos no relacionados con el embarazo o con el ejercicio del derecho a los permisos y excedencia señalados.

6.

El despido nulo tendrá el efecto de la readmisión inmediata del trabajador, con abono de los salarios dejados de percibir.

7.

El despido procedente convalidará la extinción del contrato de trabajo que con aquel se produjo, sin derecho a indemnización ni a salarios de tramitación.

## Artículo 56. Despido improcedente.

1.

Cuando el despido sea declarado improcedente, el empresario, en el plazo de cinco días desde la notificación de la sentencia, podrá optar entre la

Honako kasu hauetan ere izango da deuseza kaleratzea:

a) Lege honen 45.1.d) eta e) letretan aipatutako lan-kontratuaren etenaldietan dauden langileei dagokiena (amatasun, adopzio, adopzio aurreko zaintza, harrera, aitatasun, haurdunaldiko arrisku edo edoskitzaroko arriskuagatik) edota haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitze naturalak eragindako gaixotasunagatik lan-kontratuaren etenaldian daudenei dagokiena, edo emandako aurreabisu-epea aldi horietan amaitzen dela jakinarazitakoa.

b) Erabaki azkentzailea hartzen denean haurdun dauden langileei dagokiena, haurdunaldiaren hasieratik a) letrak aipatzen duen etenaldia hasi arte; 37. artikulua 4., 5. eta 6. zenbakiek jasotzen dituzten baimenetako bat eskatu duten edo baimen hori duten langileei dagokiena edota 46.3. artikuluan aurreikusitako eszedentzia eskatu eta horretan daudenei dagokiena; eta genero-indarkeriaren biktima diren langileei dagokiena, lan-denbora murriztu edo berrantolatzeke, mugigarritasun geografikorako, lantokiz aldatzeko edo lan-harremana eteteko eskubideak egikaritzeagatik, lege honetan aitortutako moduan eta baldintzekin.

c) Lege honen 45.1.d) artikuluan aipatutako amatasunaren, adopzioaren, zaintza-eskuordetzearen zein harreraren edo aitatasunaren ondoriozko kontratu-etenaldiak amaitu ostean lanera itzulitako langileei dagokiena, betiere bederlatzi hilabete igaro ez badira seme-alaba edo adingabea jai, adoptatu, haren zaintza eskuordetu edo hartu denetik.

Aurreko letretan ezarritakoa aplikatuko da, salbu eta kasu horietan kaleratzearen bidezkoasuna adierazten denean, haurdunaldiarekin edo baimenatarako eta eszedentziarako eskubidea egikaritzearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

6.

Kaleratzea deuseza bada, berehala hartu behar da lanean langilea, eta jaso gabeko soldatak ordaindu behar zaizkio.

7.

Kaleratzea bidezkoa bada, baliozkotu egingo da kaleratzearekin batera gertatutako lan-kontratuaren azkentzea, eta ez da egongo kalte-ordainetarako eskubiderik, ez eta izapide-aldiko soldatetarako ere.

## 56. artikulua. Bidegabeko kaleratzea.

1.

Kaleratzea bidegabetzat jotzen denean, enpresaburuak, epaia jakinarazten denetik bost eguneko epean, bi aukera izango ditu: langilea



readmisión del trabajador o el abono de una indemnización equivalente a treinta y tres días de salario por año de servicio, prorrateándose por meses los periodos de tiempo inferiores a un año, hasta un máximo de veinticuatro mensualidades.

La opción por la indemnización determinará la extinción del contrato de trabajo, que se entenderá producida en la fecha del cese efectivo en el trabajo.

2.

En caso de que se opte por la readmisión, el trabajador tendrá derecho a los salarios de tramitación.

Estos equivaldrán a una cantidad igual a la suma de los salarios dejados de percibir desde la fecha de despido hasta la notificación de la sentencia que declarase la improcedencia o hasta que hubiera encontrado otro empleo, si tal colocación fuera anterior a dicha sentencia y se probase por el empresario lo percibido, para su descuento de los salarios de tramitación.

3.

En el supuesto de no optar el empresario por la readmisión o la indemnización, se entiende que procede la primera.

4.

Si el despedido fuera un representante legal de los trabajadores o un delegado sindical, la opción corresponderá siempre a este.

De no efectuar la opción, se entenderá que lo hace por la readmisión.

Cuando la opción, expresa o presunta, sea en favor de la readmisión, esta será obligada.

Tanto si opta por la indemnización como si lo hace por la readmisión, tendrá derecho a los salarios de tramitación a los que se refiere el apartado 2.

5.

Cuando la sentencia que declare la improcedencia del despido se dicte transcurridos más de noventa días hábiles desde la fecha en que se presentó la demanda, el empresario podrá reclamar del Estado el abono de la percepción económica a la que se refiere el apartado 2, correspondiente al tiempo que exceda de dichos noventa días hábiles.

En los casos de despido en que, con arreglo a este apartado, sean por cuenta del Estado los salarios de tramitación, serán con cargo al mismo las cuotas de la Seguridad Social correspondientes a dichos salarios.

lanean berriz hartzea, edota lan-urte bakoitzeko hogeita hamahiru soldata-egunaren pareko kalte-ordaina ematea; urtebetetik beherako aldiak hileka hainbanatuko dira, eta gehienez ere hogeita lau hilabeteri dagokiona eskuratuko da kalte-ordain moduan.

Kalte-ordaina ematea aukeratzeko badu, lan-kontratua azkendu egingo da; zehazki, lana utzitako egunean bertan azkendu dela ulertuko da.

2.

Enpresaburuak langilea lanean berriz hartzea aukeratzeko badu, langileak izapide-aldiko soldatak jasotzeko eskubidea izango du.

Soldata horien zenbatekoa kaleratzea gertatu zenetik hura bidegabea izan zela aitortu duen epaiaren jakinarazpena egin arte jaso gabeko soldaten besteko kopurua izango da, edota langileak beste enplegu bat lortu arte jaso gabeko soldatena, baldin eta enplegu hori epaia baino lehen lortu badu, eta enpresaburuak horrela jasotako soldatak frogatzen baditu, izapide-aldiko soldatetatik gutxitzeko.

3.

Baldin eta enpresaburuak aukerarik egiten ez badu, ez lanera berriro hartzeko ez kalte-ordaina emateko, lehenengoa izango da egin beharrekoa.

4.

Langileen legezko ordezkari bat edo sindikatuetakoa delegatu bat bada kaleratutakoa, berorri dagokio beti aukera.

Aukerarik egiten ez badu, berriro lanera sartzeko aukera egiten duela ulertu behar da.

Eta aukera, bai beren-beregi egindakoa, bai ustezkoa ere, lanera berriro sartzeko bada, derrigorrezkoa izango da lanean hartzea.

Bata zein bestea hautatuta, 2. zenbakian aipatutako izapide-aldiko soldatak jasotzeko eskubidea izango du.

5.

Baldin eta demanda aurkezten denetik kaleratzea bidegabea dela aitortu arte laurogeita hamar egun baliodun baino gehiago igarotzen badira, 2. zenbakian aipatutako hartzeko ekonomikoa Estatuari eskatu ahal izango dio enpresaburuak, laurogeita hamar egun horietatik gorako denborakoa Estatuak berak ordain dezan.

Zenbaki honen arabera, kaleratze-kasuetan izapide-aldiko soldatak Estatuaren kontura direnean, Estatuaren kontura izango dira, halaber, soldata horien Gizarte Segurantzako kuotak ere.



## Sección 5.ª Procedimiento concursal

### Artículo 57. Procedimiento concursal.

En caso de concurso, a los supuestos de modificación, suspensión y extinción colectivas de los contratos de trabajo y de sucesión de empresa, se aplicarán las especialidades previstas en la Ley 22/2003, de 9 de julio, Concursal.

## CAPÍTULO IV

### Faltas y sanciones de los trabajadores

#### Artículo 58. Faltas y sanciones de los trabajadores.

1.

Los trabajadores podrán ser sancionados por la dirección de las empresas en virtud de incumplimientos laborales, de acuerdo con la graduación de faltas y sanciones que se establezcan en las disposiciones legales o en el convenio colectivo que sea aplicable.

2.

La valoración de las faltas y las correspondientes sanciones impuestas por la dirección de la empresa serán siempre revisables ante la jurisdicción social.

La sanción de las faltas graves y muy graves requerirá comunicación escrita al trabajador, haciendo constar la fecha y los hechos que la motivan.

3.

No se podrán imponer sanciones que consistan en la reducción de la duración de las vacaciones u otra minoración de los derechos al descanso del trabajador o multa de haber.

## CAPÍTULO V

### Plazos de prescripción

#### Sección 1.ª Prescripción de acciones derivadas del contrato

#### Artículo 59. Prescripción y caducidad.

1.

Las acciones derivadas del contrato de trabajo que no tengan señalado plazo especial prescribirán al año de su terminación.

A estos efectos, se considerará terminado el contrato:

a) El día en que expire el tiempo de duración convenido o fijado por disposición legal o convenio colectivo.

## 5. atala. Konkurtso-prozedura

### 57. artikulua. Konkurtso-prozedura.

Konkurtsuaren kasuan, lan-kontratuak aldatu, eten eta azkentze kolektiboei dagokienez, baita enpresaren ondorengotzari dagokionez ere, Konkurtsoari buruzko Legean (uztailaren 9ko 22/2003) xedatzen diren espezialitateak aplikatuko dira.

## IV. KAPITULUA

### Langileen faltak eta zehapenak

#### 58. artikulua. Langileen faltak eta zehapenak.

1.

Laneko betebeharrak bete ezean, langileak zehatu egin ditzake enpresetako zuzendaritzak, legezko xedapenetan edo aplikagarri den hitzarmen kolektiboan ezarritako falten eta zehapenen mailaketaren arabera.

2.

Enpresako zuzendaritzak falten gainean egindako balorazioa eta ezarritako zehapenak kasu guztietan aztertu ahal izango dira lan-arloko jurisdikzioan.

Falta astunak eta oso astunak zehatzeko, ordea, idatziz jakinarazi behar zaio langileari, eta zehapena eragin duten gertaerak zein diren adierazi behar da, eta baita noiz gertatu ziren ere.

3.

Oporraldia gutxitu edo langilearen atsedeneskubideak murrizten dituen zehapenik ezin izango da ezarri, ez eta ondasunen gaineko isunik ere.

## V. KAPITULUA

### Preskripzio-epeak

#### 1. atala. Kontratutik sortutako ekintzen preskripzioa

#### 59. artikulua. Preskripzioa eta iraungitzea.

1.

Lan-kontratuko ekintzak, epe berezirik izendatuta ez badaukate, amaitu eta urtebetera preskribatuko dira.

Ondorio horietarako, kontratua amaitu dela joko da:

a) Legezko xedapenez edo hitzarmen kolektiboz hitzartu edo finkatutako iraupen-denbora amaitzen den egunean.





b) El día en que termine la prestación de servicios continuados, cuando se haya dado esta continuidad por virtud de prórroga expresa o tácita.

2.

Si la acción se ejercita para exigir percepciones económicas o para el cumplimiento de obligaciones de tracto único, que no puedan tener lugar después de extinguido el contrato, el plazo de un año se computará desde el día en que la acción pudiera ejercitarse.

3.

El ejercicio de la acción contra el despido o resolución de contratos temporales caducará a los veinte días siguientes de aquel en que se hubiera producido.

Los días serán hábiles y el plazo de caducidad a todos los efectos.

El plazo de caducidad quedará interrumpido por la presentación de la solicitud de conciliación ante el órgano público de mediación, arbitraje y conciliación competente.

4.

Lo previsto en el apartado anterior será de aplicación a las acciones contra las decisiones empresariales en materia de movilidad geográfica y modificación sustancial de condiciones de trabajo.

El plazo se computará desde el día siguiente a la fecha de notificación de la decisión empresarial, tras la finalización, en su caso, del periodo de consultas.

## **Sección 2.<sup>a</sup> Prescripción de las infracciones y faltas**

### **Artículo 60. Prescripción.**

1.

Las infracciones cometidas por el empresario prescribirán conforme a lo establecido en el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto.

2.

Respecto a los trabajadores, las faltas leves prescribirán a los diez días; las graves, a los veinte días, y las muy graves, a los sesenta días a partir de la fecha en que la empresa tuvo conocimiento de su comisión y, en todo caso, a los seis meses de haberse cometido.

b) Jarraiko zerbitzuak betetzea amaitzen den egunean, jarraipen hori berariazko luzapen bidez edo isilbidezko luzapenez izan bada.

2.

Hartzeko ekonomikoak ordain daitezela eskatzeko, edo kontratua amaitu ostean gauzatu ezin diren jarraipen bakarreko betebeharrak bete daitezela eskatzeko gauzatzen bada ekintza, ekintza gauzatu daitekeen egunetik hasita kontatuko da urtebeteko epea.

3.

Kaleratzearen kontrako ekintza edo aldi baterako kontratuak desegitearen kontrako ekintza gertakizun horretatik hurrengo hogeie egunetara iraungiko da.

Egunak esatean egun balioduna esan nahi da, eta iraungitze-epea ondorio guztietarako izango da.

Iraungitze-epea eten egingo da, aldiz, bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetzeko organo publiko eskudunari adiskidetze-eskabidea aurkezten zaionean.

4.

Mugigarritasun geografikoa dela eta, eta lan-baldintzen funtsezko aldaketak direla eta, enpresak hartutako erabakien kontrako egintzei aplika dakieke aurreko zenbakian aurreikusitakoa.

Enpresaren erabakiaren jakinarazpenaren biharamunetik kontatuko da epea, kontsultaldia amaitu eta gero, halakorik egon bada.

## **2. atala. Arau-hausteen eta falten preskripzioa**

### **60. artikulua. Preskripzioa.**

1.

Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta) testu bateginean ezarritakoaren arabera preskribatuko dira enpresaburuak egindako arau-hausteak.

2.

Langileei dagokienez, falta arinak hamar egunera preskribatuko dira, falta astunak hogeie egunera eta falta oso astunak hirurogeie egunera, enpresak falta horien berri izan duenetik hasita. Nolanahi ere, faltak sei hilabetera preskribatu dira, egiten direnetik hasita.





## TÍTULO II

### De los derechos de representación colectiva y de reunión de los trabajadores en la empresa

#### CAPÍTULO I

##### Del derecho de representación colectiva

###### Artículo 61. Participación.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 y sin perjuicio de otras formas de participación, los trabajadores tienen derecho a participar en la empresa a través de los órganos de representación regulados en este título.

##### Sección 1.ª Órganos de representación

###### Artículo 62. Delegados de personal.

1.

La representación de los trabajadores en la empresa o centro de trabajo que tengan menos de cincuenta y más de diez trabajadores corresponde a los delegados de personal.

Igualmente podrá haber un delegado de personal en aquellas empresas o centros que cuenten entre seis y diez trabajadores, si así lo decidieran estos por mayoría.

Los trabajadores elegirán, mediante sufragio libre, personal, secreto y directo a los delegados de personal en el número siguiente: hasta treinta trabajadores, uno; de treinta y uno a cuarenta y nueve, tres.

2.

Los delegados de personal ejercerán mancomunadamente ante el empresario la representación para la que fueron elegidos y tendrán las mismas competencias establecidas para los comités de empresa.

Los delegados de personal observarán las normas que sobre sigilo profesional están establecidas para los miembros de comités de empresa en el artículo 65.

###### Artículo 63. Comités de empresa.

1.

El comité de empresa es el órgano representativo y colegiado del conjunto de los trabajadores en la empresa o centro de trabajo para la defensa de sus intereses, constituyéndose en cada centro de trabajo cuyo censo sea de cincuenta o más trabajadores.

## II. TITULUA

### Langileek enpresan ordezkariak kolektibo izateko eta bilerak egiteko duten eskubidea

#### I. KAPITULUA

##### Ordezkaritza kolektibo izateko eskubidea

###### 61. artikulua. Parte-hartzea.

Lege honetako 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta parte hartzeko beste era batzuen aurka egin gabe, titulu honetan araututako ordezkariak organoen bidez enpresan parte hartzeko eskubidea dute langileek.

##### 1. atala. Ordezkaritza-organismoak

###### 62. artikulua. Langileen ordezkariak.

1.

Berrogeita hamar langile baino gutxiago eta hamar baino gehiago dituzten enpresetan edo lantokietan, langileen ordezkariak dagokie langileak ordezkatzeko.

Sei eta hamar langile arteko enpresetan edo lantokietan ere langileen ordezkari bat egon daiteke, horrela erabakitzen badute langileek gehiengoz.

Langileak sufragio libre, pertsonal, sekretu eta zuzenaz baliatuko dira langileen ordezkariak hautatzeko, honako kopuru hauetan zehazki: gehienez hogeita hamar langile daudenean, bat; hogeita hamar langiletik berrogeita bederatzira bitartean, hiru.

2.

Langileen ordezkariak denek batera beteko dute, enpresaburuaren aurrean, hautatzean eman zaien ordezkariak, eta enpresa-batzordeentzat finkatutako eskumen berberak edukiko dituzte.

Lanbideko isiltasunari buruz 65. artikuluan enpresa-batzordeetako kideentzat ezarritako arauak bete behar dituzte langileen ordezkariak.

###### 63. artikulua. Enpresa-batzordeak.

1.

Enpresan edo lantokian langileek denek batera duten kide anitzeko ordezkariak kolektibo da enpresa-batzordea, langileen interesak babesteko; eta berrogeita hamar langile edo gehiagoko lantoki bakoitzean bana eratuko da.



2.

En la empresa que tenga en la misma provincia, o en municipios limítrofes, dos o más centros de trabajo cuyos censos no alcancen los cincuenta trabajadores, pero que en su conjunto lo sumen, se constituirá un comité de empresa conjunto.

Cuando unos centros tengan cincuenta trabajadores y otros de la misma provincia no, en los primeros se constituirán comités de empresa propios y con todos los segundos se constituirá otro.

3.

Solo por convenio colectivo podrá pactarse la constitución y funcionamiento de un comité intercentros con un máximo de trece miembros, que serán designados de entre los componentes de los distintos comités de centro.

En la constitución del comité intercentros se guardará la proporcionalidad de los sindicatos según los resultados electorales considerados globalmente.

Tales comités intercentros no podrán arrogarse otras funciones que las que expresamente se les conceda en el convenio colectivo en que se acuerde su creación.

#### **Artículo 64. Derechos de información y consulta y competencias.**

1.

El comité de empresa tendrá derecho a ser informado y consultado por el empresario sobre aquellas cuestiones que puedan afectar a los trabajadores, así como sobre la situación de la empresa y la evolución del empleo en la misma, en los términos previstos en este artículo.

Se entiende por información la transmisión de datos por el empresario al comité de empresa, a fin de que este tenga conocimiento de una cuestión determinada y pueda proceder a su examen.

Por consulta se entiende el intercambio de opiniones y la apertura de un diálogo entre el empresario y el comité de empresa sobre una cuestión determinada, incluyendo, en su caso, la emisión de informe previo por parte del mismo.

En la definición o aplicación de los procedimientos de información y consulta, el empresario y el comité de empresa actuarán con espíritu de cooperación, en cumplimiento de sus derechos y obligaciones recíprocas, teniendo en cuenta tanto los intereses de la empresa como los de los trabajadores.

2.

Enpresa batek, probintzia bakar batean edo mugakide diren udalerrietan, bi lantoki edo gehiago baditu, eta bakoitza berrogeita hamar langilera iristen ez bada, baina denak batera bai, enpresa-batzorde bateratu bat eratuko dute.

Lantoki batzuek berrogeita hamar langile badituzte eta probintzia bereko beste batzuek ez, lehenengoetan bertako enpresa-batzordeak eratuko dira, eta bigarren multzoko beste guztiekin beste enpresa-batzorde bat.

3.

Hitzarmen kolektiboz baino ezin izango da itundu lantoki arteko batzorde bat eratu eta jardunean jartzea; hamahiru kide izango ditu gehienera, eta lantoki bakoitzeko batzordeetako kideen artean izendatuko dituzte.

Lantoki arteko batzordea eratzeko, sindikatuen proportzionaltasuna zaindu behar da, hauteskundeetako emaitzak orokorrean hartuta.

Lantoki arteko batzorde horiek ezin izango dituzte bereganatu batzordeon sorrera onartzen duen hitzarmen kolektiboan beren-beregi emandako funtzioak baino.

#### **64. artikulua. Informazioa eskuratzeko eta kontsulta egiteko eskubidea, eta eskumenak.**

1.

Enpresa-batzordeak eskubidea dauka enpresaburuak beregana jo dezan informazioa emateko edo kontsultak egiteko, langileengan eragina izango duten kontuei buruz, bai eta enpresaren egoeraren gaineko kontuei buruz eta enpresaren bilakaeraren gaineko kontuei buruz ere, artikulua honetan zehazten den moduan.

Enpresaburuak enpresa-batzordeari kontu jakin baten berri izan dezan eta aztertu ahal izan dezan egindako datu-transmisioa hartzen da informaziotzat.

Kontsulta, berriz, enpresaburuaren eta enpresa-batzordearen artean egindako gai jakin bati buruzko iritzi-trukea eta hasitako elkarrizketa da, batzordeak aurretiaz txostena egitea ere barne hartuta, halakorik badago.

Informatzeko eta kontsulta egiteko prozedurak definitu edo aplikatzeko orduan, enpresaburuak eta enpresa-batzordeak, biek ere, elkarlanerako gogoz jardun behar dute, eta bakoitzak bestearekiko dituen eskubide eta obligazioak zintzo betez, aintzat hartuta enpresaren interesak nahiz langileen interesak.



2.

El comité de empresa tendrá derecho a ser informado trimestralmente:

a) Sobre la evolución general del sector económico a que pertenece la empresa.

b) Sobre la situación económica de la empresa y la evolución reciente y probable de sus actividades, incluidas las actuaciones medioambientales que tengan repercusión directa en el empleo, así como sobre la producción y ventas, incluido el programa de producción.

c) Sobre las previsiones del empresario de celebración de nuevos contratos, con indicación del número de estos y de las modalidades y tipos que serán utilizados, incluidos los contratos a tiempo parcial, la realización de horas complementarias por los trabajadores contratados a tiempo parcial y de los supuestos de subcontratación.

d) De las estadísticas sobre el índice de absentismo y las causas, los accidentes de trabajo y enfermedades profesionales y sus consecuencias, los índices de siniestralidad, los estudios periódicos o especiales del medio ambiente laboral y los mecanismos de prevención que se utilicen.

3.

También tendrá derecho a recibir información, al menos anualmente, relativa a la aplicación en la empresa del derecho de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres, entre la que se incluirán datos sobre la proporción de mujeres y hombres en los diferentes niveles profesionales, así como, en su caso, sobre las medidas que se hubieran adoptado para fomentar la igualdad entre mujeres y hombres en la empresa y, de haberse establecido un plan de igualdad, sobre la aplicación del mismo.

4.

El comité de empresa, con la periodicidad que proceda en cada caso, tendrá derecho a:

a) Conocer el balance, la cuenta de resultados, la memoria y, en el caso de que la empresa revista la forma de sociedad por acciones o participaciones, los demás documentos que se den a conocer a los socios, y en las mismas condiciones que a estos.

b) Conocer los modelos de contrato de trabajo escrito que se utilicen en la empresa así como los documentos relativos a la terminación de la relación laboral.

c) Ser informado de todas las sanciones impuestas por faltas muy graves.

2.

Hiru hilean behin informazioa eskuratzeko eskubidea dauka enpresa-batzordeak, hauei buruz:

a) Enpresaren sektore ekonomikoaren bilakaera orokorrari buruz.

b) Enpresaren egoera ekonomikoari buruz eta bere jarduerak orain duten eta ziurrenik aurrerantzean izango duten bilakaerari buruz; besteak beste, enpleguan zuzenean eragina izango duten ingurumen arloko ekintzen berri jaso behar du, edo ekoizpenean eta salmentetan eragina duten ekintzen berri, ekoizpen-programa barne.

c) Kontratu berriak egiteko enpresaburuak dauzkan aurreikuspenei buruz, zenbat kontratu izango diren eta zer-nolako tipo eta modalitatekoak izango diren; horren barnean, aldi baterako kontratuak, aldi baterako kontratatutako langileek egin beharreko ordu osagarriak, eta azpi-kontratatzeko kasuak.

d) Absentismo-tasaren gaineko estatistikei buruz eta absentismoaren arrazoiei buruz; laneko istripu eta laneko gaixotasunei eta horien ondorioei buruz; ezbehar-tasari buruz; laneko ingurumenari buruzko aldizkako azterketa edo azterketa bereziei buruz; eta prebentziorako erabiltzen diren mekanismoei buruz.

3.

Halaber, gutxienez urtero, emakumeen eta gizonen artean tratu- eta aukera-berdintasunaren eskubideak enpresan duen aplikazioaren gainean informazioa jasotzeko eskubidea izango du, eta informazio horretan lanbide-maila desberdinetan dauden emakumeen eta gizonen proportzio-datuak jasoko dira; eta, hala denean, baita ere, enpresan emakumeen eta gizonen artean berdintasuna suspertzeko hartu diren neurrien gainean, eta, berdintasun-plana ezarri bada, horren aplikazioaren gainean.

4.

Enpresa-batzordeak, kasuan-kasuan egoki den maiztasunez, eskubidea izango du:

a) Balantzea, galera eta irabazien kontua eta memoria ezagutzeko, eta sozietatea akziokakoa edo partaidetzakakoa bada, bazkideei ezagutzeko ematen zaizkien beste agiri guztiak ezagutzeko, bazkideen baldintza berberetan.

b) Enpresan lan-kontratueterako erabiltzen diren eredu idatziak ezagutzeko, eta lan-harremanak amaitzeko erabiltzen diren agiriak ezagutzeko.

c) Falta oso astunengatik ezarritako zehapen guztien berri izateko.



Asimismo, el comité de empresa tendrá derecho a recibir la copia básica de los contratos así como la notificación de las prórrogas y de las denuncias correspondientes a los mismos en el plazo de diez días siguientes a que tuvieran lugar.

5.

El comité de empresa tendrá derecho a ser informado y consultado sobre la situación y estructura del empleo en la empresa o en el centro de trabajo, así como a ser informado trimestralmente sobre la evolución probable del mismo, incluyendo la consulta cuando se prevean cambios al respecto.

Asimismo, tendrá derecho a ser informado y consultado sobre todas las decisiones de la empresa que pudieran provocar cambios relevantes en cuanto a la organización del trabajo y a los contratos de trabajo en la empresa.

Igualmente tendrá derecho a ser informado y consultado sobre la adopción de eventuales medidas preventivas, especialmente en caso de riesgo para el empleo.

El comité de empresa tendrá derecho a emitir informe, con carácter previo a la ejecución por parte del empresario de las decisiones adoptadas por este, sobre las siguientes cuestiones:

- a) Las reestructuraciones de plantilla y ceses totales o parciales, definitivos o temporales, de aquella.
- b) Las reducciones de jornada.
- c) El traslado total o parcial de las instalaciones.
- d) Los procesos de fusión, absorción o modificación del estatus jurídico de la empresa que impliquen cualquier incidencia que pueda afectar al volumen de empleo.
- e) Los planes de formación profesional en la empresa.
- f) La implantación y revisión de sistemas de organización y control del trabajo, estudios de tiempos, establecimiento de sistemas de primas e incentivos y valoración de puestos de trabajo.

6.

La información se deberá facilitar por el empresario al comité de empresa, sin perjuicio de lo establecido específicamente en cada caso, en un momento, de una manera y con un contenido apropiados, que permitan a los representantes de los trabajadores proceder a su examen adecuado y preparar, en su caso, la consulta y el informe.

Halaber, enpresa-batzordeak eskubidea izango du kontratuen oinarrizko kopia jasotzeko eta kontratuen inguruko luzapenen eta salaketen berri izateko, gertatu eta hurrengo hamar egunen barruan.

5.

Enpresa-batzordeak eskubidea dauka enpresako edo lantokiko enpleguaren egoeraz eta egituraz informazioa jasotzeko eta horri buruz berari galde egiteko, eta hiru hilean behin informazioa jasotzeko enpleguak izan dezakeen bilakaeraz, eta horren inguruan aldaketarik aurreikusten denean berari kontsulta egiteko.

Horrez gain, eskubidea dauka jakinaren gainean egoteko eta berari kontsulta egiteko baldin eta enpresaren antolaketan edo lan-kontratuetan aldaketa handiak eragingo dituzten erabakiak hartu behar badira.

Gainera, prebentzioko neurriak hartzekoak badira, horri buruzko informazioa jasotzeko eta berari kontsulta egiteko eskubidea izango du, batez ere, neurri horiek enplegua arriskuan jar badezakete.

Enpresaburuak berak hartutako erabakiak gauzatu baino lehen irizpena emateko eskubidea izango du enpresa-batzordeak, honako gai hauetan:

- a) Plantillaren berregituraketak, eta plantilla kentzeak, bai osorik zein zati batean, bai behin betiko zein aldi baterako.
- b) Lanaldiaren murrizketak.
- c) Instalazioak, edo instalazioen zati bat, beste norabait eramatea.
- d) Enpresaren bat egiteko edo xurgatzeko prozesuak, edo enpresaren estatus juridikoa aldatzeko prozesuak, enpleguaren bolumenari eragin diezaiokeen edozein gorabehera badakarte.
- e) Enpresako lanbide-prestakuntza planak.
- f) Lana antolatzeko eta kontrolatzeko sistemak ezarri eta berrikustea, denboren azterketak, prima eta pizgarriak emateko sistema ezartzea, eta lanpostuen balorazioa egitea.

6.

Informazioa enpresaburuak berak eman behar dio enpresa-batzordeari, kasu bakoitzerako zehaztuta dagoena errespetatuz. Informazioa emateko unek, moduak eta informazioaren edukiak egokiak izan behar dute, langileen ordezkariak aukera izan dezaten informazioa behar bezala aztertzeko eta, beharko balute, kontsulta egin eta txostena prestatzeko.



La consulta deberá realizarse, salvo que expresamente esté establecida otra cosa, en un momento y con un contenido apropiados, en el nivel de dirección y representación correspondiente de la empresa, y de tal manera que permita a los representantes de los trabajadores, sobre la base de la información recibida, reunirse con el empresario, obtener una respuesta justificada a su eventual informe y poder contrastar sus puntos de vista u opiniones con objeto, en su caso, de poder llegar a un acuerdo sobre las cuestiones indicadas en el apartado 5, y ello sin perjuicio de las facultades que se reconocen al empresario al respecto en relación con cada una de dichas cuestiones.

En todo caso, la consulta deberá permitir que el criterio del comité pueda ser conocido por el empresario a la hora de adoptar o de ejecutar las decisiones.

Los informes que deba emitir el comité de empresa tendrán que elaborarse en el plazo máximo de quince días desde que hayan sido solicitados y remitidas las informaciones correspondientes.

7.

El comité de empresa tendrá también las siguientes competencias:

a) Ejercer una labor:

1.º De vigilancia en el cumplimiento de las normas vigentes en materia laboral, de seguridad social y de empleo, así como del resto de los pactos, condiciones y usos de empresa en vigor, formulando, en su caso, las acciones legales oportunas ante el empresario y los organismos o tribunales competentes.

2.º De vigilancia y control de las condiciones de seguridad y salud en el desarrollo del trabajo en la empresa, con las particularidades previstas en este orden por el artículo 19.

3.º De vigilancia del respeto y aplicación del principio de igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres.

b) Participar, como se determine por convenio colectivo, en la gestión de obras sociales establecidas en la empresa en beneficio de los trabajadores o de sus familiares.

c) Colaborar con la dirección de la empresa para conseguir el establecimiento de cuantas medidas procuren el mantenimiento y el incremento de la productividad, así como la sostenibilidad ambiental de la empresa, si así está pactado en los convenios colectivos.

Argi eta garbi besterik adierazten ez bada, kontsulta une egokian eta eduki egokiaz egin behar da, kontsulta horri enpresaren barruan dagokion zuzendaritza eta ordezkartza maila egokian, eta, jasotako informazioan oinarrituta, enpresaburuarekin biltzeko, aurrerago egingo duen txostenari buruzko erantzun justifikatua lortzeko eta iritzi eta ikuspuntuak elkarri azaltzeko aukera eman behar die langileen ordezkariet; izan ere, 5 zenbakian azaldutako kontuei buruz akordiora iristea da asmoa, egokitzen bada. Hori guztia, enpresaburuak kontu horietako bakoitzean dauzkan ahalmenak aparte utzita.

Edonola ere, kontsultak aukera eman behar du enpresaburuak enpresa-batzordearen irizpidearen berri jakiteko, erabakiak hartu edo gauzatzeko garaian.

Enpresa-batzordeak egin beharreko txostenek, gehienez ere, hamabost eguneko epean egon behar dute prest, txostena eskatu eta dagozkion informazioak bidaltzen zaizkionetik aurrera.

7.

Enpresa-batzordeak honako eskumen hauek ere izango ditu:

a) Lanok egitea:

1.a Lan-arloan, Gizarte Segurantzaren eta enplegu-arloan dauden arauak betetzen diren zaintzea, baita enpresan indarrean dauden itun, baldintza eta usadioak ere; eta, premiazkoa bada, bidezko lege-ekintzak gauzatzeko enpresaburuaren eta eskumenak dituzten erakunde edo epaitegien aurrean.

2.a Enpresan lana egiterakoan behar diren segurtasun eta higieneko baldintzak zaindu eta kontrolatzea, 19. artikuluan aurreikusitako berezitasunak kontuan hartuta.

3.a Emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukeraberberdintasunaren printzipioa errespetatzen eta aplikatzen dela zaintzea.

b) Langileen edo senitartekoen alde enpresan ezarritako gizarte-ekintzen kudeaketan parte hartzea, hitzarmen kolektibo bidez zehaztutako moduan.

c) Enpresako zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea produktibitateari eutsi eta produktibitatea gehitzeko bideratutako neurri guztiak ezar daitezkeen, baita enpresaren ingurumen-jasangarritasuna lortzeko ere; betiere hitzarmen kolektiboetan hala itunduta badago.





d) Colaborar con la dirección de la empresa en el establecimiento y puesta en marcha de medidas de conciliación.

e) Informar a sus representados en todos los temas y cuestiones señalados en este artículo en cuanto directa o indirectamente tengan o puedan tener repercusión en las relaciones laborales.

8.

Lo dispuesto en el presente artículo se entenderá sin perjuicio de las disposiciones específicas previstas en otros artículos de esta ley o en otras normas legales o reglamentarias.

9.

Respetando lo establecido legal o reglamentariamente, en los convenios colectivos se podrán establecer disposiciones específicas relativas al contenido y a las modalidades de ejercicio de los derechos de información y consulta previstos en este artículo, así como al nivel de representación más adecuado para ejercerlos.

#### **Artículo 65. Capacidad y sigilo profesional.**

1.

Se reconoce al comité de empresa capacidad, como órgano colegiado, para ejercer acciones administrativas o judiciales en todo lo relativo al ámbito de sus competencias, por decisión mayoritaria de sus miembros.

2.

Los miembros del comité de empresa y este en su conjunto, así como, en su caso, los expertos que les asistan, deberán observar el deber de sigilo con respecto a aquella información que, en legítimo y objetivo interés de la empresa o del centro de trabajo, les haya sido expresamente comunicada con carácter reservado.

3.

En todo caso, ningún tipo de documento entregado por la empresa al comité podrá ser utilizado fuera del estricto ámbito de aquella ni para fines distintos de los que motivaron su entrega.

El deber de sigilo subsistirá incluso tras la expiración de su mandato e independientemente del lugar en que se encuentren.

4.

Excepcionalmente, la empresa no estará obligada a comunicar aquellas informaciones específicas relacionadas con secretos industriales, financieros o comerciales cuya divulgación pudiera, según criterios objetivos, obstaculizar el funcionamiento de

d) Enpresa-zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea adizkidetze-neurriak ezarri eta abian jartzeko.

e) Artikulu honetan aipatutako gai eta arazo guztien berri ematea bere ordezkatupei, gaiok lan-harremanetan zuzenean edo zeharka eragina daukaten edo eduki dezaketen neurrian.

8.

Artikulu honetan xedatutakoa lege honetako beste artikuluetan edo bestelako lege-arau edo erregelamendu-arauetan zehazki xedatutakoa baztertu gabe ulertuko da.

9.

Legeek edo arauak ezarritakoa errespetaturik, hitzarmen kolektiboetan aukera egongo da artikuluko honek jasotako informazio- eta kontsulta-eskubideen edukiari eta gauzatzeko modalitateei buruzko xedapen bereziak ezartzeko, bai eta eskubide horiek gauzatzeko ordezkaritza-maila egokienari buruzko xedapenak ezartzeko ere.

#### **65. artikulua. Gaitasuna eta lanbideko isiltasuna.**

1.

Enpresa-batzordeari, kide anitzeko organoa denez, ahalmena onartzen zaio administrazioko ekintzak edo ekintza judizialak gauzatzeko, bere eskumenen eremuko gai guztietan, kide gehienek hala erabakitzen badute.

2.

Enpresa-batzordeko kideek, eta batzordeak berak, nahiz, kasuan kasu, batzordeari aholku emateko adituek, isiltasun-betebeharra bete behar dute beti baldin eta, enpresaren edo lantokiaren interes legitimoak eta objektiboak gogoan hartuta, inongo informaziorik eman bazaie isilpean.

3.

Enpresak batzordeari emandako agiri bat bera ere ezin izango da erabili eremu zehatz horretatik kanpo, ezta ematea eragin zuten helburuak ez diren bestelako xedeetarako ere ez.

Isiltasun-beharrak agintaldia amaitu ondoren ere iraungo du, zein lekutan dauden axola gabe.

4.

Salbuespeneko zenbait kasutan, enpresak ez du inongo obligaziorik izango zenbait informazio espezifiko zabaltzeko, sekretu industrial, finantzario edo komertzialei buruzko informazioa adibidez; baldin eta, irizpide objektiboen arabera, hori jakinarazteak lantokiaren edo enpresaren



la empresa o del centro de trabajo u ocasionar graves perjuicios en su estabilidad económica.

Esta excepción no abarca aquellos datos que tengan relación con el volumen de empleo en la empresa.

5.

La impugnación de las decisiones de la empresa de atribuir carácter reservado o de no comunicar determinadas informaciones a los representantes de los trabajadores se tramitará conforme al proceso de conflictos colectivos regulado en el capítulo VIII del título II del libro segundo de la Ley 36/2011, de 10 de octubre, reguladora de la Jurisdicción Social.

Asimismo, se tramitarán conforme a este proceso los litigios relativos al cumplimiento por los representantes de los trabajadores y por los expertos que les asistan de su obligación de sigilo.

Lo dispuesto en este apartado se entiende sin perjuicio de lo previsto en el texto refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, para los casos de negativa injustificada de la información a que tienen derecho los representantes de los trabajadores.

#### **Artículo 66. Composición.**

1.

El número de miembros del comité de empresa se determinará de acuerdo con la siguiente escala:

- a) De cincuenta a cien trabajadores, cinco.
- b) De ciento uno a doscientos cincuenta trabajadores, nueve.
- c) De doscientos cincuenta y uno a quinientos trabajadores, trece.
- d) De quinientos uno a setecientos cincuenta trabajadores, diecisiete.
- e) De setecientos cincuenta y uno a mil trabajadores, veintiuno.
- f) De mil en adelante, dos por cada mil o fracción, con el máximo de setenta y cinco.

2.

Los comités de empresa o centro de trabajo elegirán de entre sus miembros un presidente y un secretario del comité, y elaborarán su propio reglamento de procedimiento, que no podrá contravenir lo dispuesto en la ley, remitiendo copia del mismo a la autoridad laboral, a efectos de registro, y a la empresa.

funtzionamendua oztopatuko balu edo bere egonkortasun ekonomikoari kalte handia eragingo balio.

Salbuespen honetatik kanpo geratzen dira enpresaren enplegu-bolumenarekin lotutako datuak.

5.

Enpresak zenbait informazio isilpekotzat jotzea edo zenbait informazio langileen ordezkariari ez jakinaraztea erabakiz gero, Lan Arloko Jurisdikzioa Arautzen duen Legearen (urriaren 10eko 36/2011) bigarren liburuko II. tituluko VIII. kapituluan araututako gatazka kolektiboen prozesuari jarraikiz izapidetuko da erabaki horien aurkaratzea.

Halaber, prozesu horrexen arabera izapidetuko dira langileek eta langileei laguntzen dieten adituek informazioa isilpean gordetzeko duten betebeharrak bete ote duten jakiteko sortutako auziak.

Zenbaki honetan xedatutakoak ez du inola ere bazterten Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen (abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartuta) testu bateginean ezarritakoa, langileen ordezkariari justifikaziorik gabe eskubidez dagokien informazioa ukatzen zaien kasuetarako.

#### **66. artikulua. Osaera.**

1.

Enpresa-batzordeko kide kopurua mailaketa honen arabera zehaztu behar da:

- a) Berrogeita hamar langiletik ehunera bitarteko enpresetan, bost kide.
- b) Ehun eta bat langiletik berrehun eta berrogeita hamarrera bitartekoetan, bederatzik kide.
- c) Berrehun eta berrogeita hamaika langiletik bostehunera bitartekoetan, hamahiru kide.
- d) Bostehun eta bat langiletik zazpiehun eta berrogeita hamarrera bitartekoetan, hamazazpi kide.
- e) Zazpiehun eta berrogeita hamaika langiletik milara bitartekoetan, hogeita bat kide.
- f) Milatik aurrera, bi kide mila bakoitzeko edo zati bakoitzeko, gehienez hirurogeita hamabost kide izan arte.

2.

Enpresa-batzordeek edo lantokietakoek lehendakari bat eta idazkari bat hautatu behar dituzte bertako kideen artean, eta jardunbiderako erregelamendu bat egin behar dute batzordearentzat, legean xedatutakoa hautsi gabe. Erregelamenduaren kopia bat lan-agintaritzari bidali behar zaio, erregistratzeko, eta beste kopia bat enpresari.



Los comités deberán reunirse cada dos meses o siempre que lo solicite un tercio de sus miembros o un tercio de los trabajadores representados.

#### **Artículo 67. Promoción de elecciones y mandato electoral.**

1.

Podrán promover elecciones a delegados de personal y miembros de comités de empresa las organizaciones sindicales más representativas, las que cuenten con un mínimo de un diez por ciento de representantes en la empresa o los trabajadores del centro de trabajo por acuerdo mayoritario.

Los sindicatos con capacidad de promoción de elecciones tendrán derecho a acceder a los registros de las Administraciones Públicas que contengan datos relativos a la inscripción de empresas y altas de trabajadores, en la medida necesaria para llevar a cabo tal promoción en sus respectivos ámbitos.

Los promotores comunicarán a la empresa y a la oficina pública dependiente de la autoridad laboral su propósito de celebrar elecciones con un plazo mínimo de, al menos, un mes de antelación al inicio del proceso electoral.

En dicha comunicación los promotores deberán identificar con precisión la empresa y el centro de trabajo de esta en que se desea celebrar el proceso electoral y la fecha de inicio de este, que será la de constitución de la mesa electoral y que, en todo caso, no podrá comenzar antes de un mes ni más allá de tres meses contabilizados a partir del registro de la comunicación en la oficina pública dependiente de la autoridad laboral.

Esta oficina pública, dentro del siguiente día hábil, expondrá en el tablón de anuncios los preavisos presentados, facilitando copia de los mismos a los sindicatos que así lo soliciten.

Solo previo acuerdo mayoritario entre los sindicatos más representativos o representativos de conformidad con la Ley Orgánica 11/1985, de 2 de agosto, de Libertad Sindical, podrá promoverse la celebración de elecciones de manera generalizada en uno o varios ámbitos funcionales o territoriales.

Dichos acuerdos deberán comunicarse a la oficina pública dependiente de la autoridad laboral para su depósito y publicidad.

Cuando se promuevan elecciones para renovar la representación por conclusión de la duración del mandato, tal promoción solo podrá efectuarse a partir de la fecha en que falten tres meses para el vencimiento del mandato.

Bi hilean behin bildu behar dira batzordeak, edo batzordeko kideetako herenak edo ordezkaturako langileen herenak eskatzen duenean.

#### **67. artikulua. Hauteskundeak sustatzea eta hauteskunde-agintaldia.**

1.

Langileen ordezkari izateko eta enpresa-batzordeko kideetarako hauteskundeak sustatzeko ahalmena hauek daukate: bai ordezkaritza handieneko sindikatuek, bai gutxienez enpresako ordezkarien ehuneko hamarra daukatenek, eta bai lantokiko langileek ere, gehiengoaren akordioz.

Hauteskundeak sustatzeko gaitasuna daukaten sindikatuek, hartara, enpresen inskripzioari eta langileen altei buruzko datuak dauzkaten administrazio publikoetako erregistroetara jotzeko eskubidea daukate, bakoitzak, bere eremuan sustapen hori aurrera eramateko, erregistroetara joatea beharrezkoa duen neurrian.

Sustatzaileek, hauteskunde-prozesua hasi baino hilabete lehenago gutxienez, hauteskundeak egiteko asmoa daukatela adierazi behar diete enpresari eta lan-agintaritzaren menpeko bulego publikoari.

Jakinarazpen horretan, hauteskunde-prozesua zein enpresatan eta enpresako zein lantokitan egin nahi duten zehaztu behar dute, argi, sustatzaileek, eta baita prozesua hasteko eguna ere, egun horretan eratu behar baita hauteskunde-mahaia; nolahi ere, hasiera ezin izango da egin lan-agintaritzaren mendeko bulego publikoan jakinarazpena jaso eta hilabete igaro barik, ez eta ordutik hiru hilabete baino geroago ere.

Bulego publiko horrek, hurrengo egun baliodunean, aurkeztutako aurreabisuak iragarki-oholean jarriko ditu, eta horien kopia emango die hala eskatzen duten sindikatuak.

Jarduera-arlo batean edo gehiagotan edo lurralde-eremu batean edo gehiagotan, modu orokorrean hauteskundeak egiteko, ordezkaritza handiena edo ordezkaritza duten sindikatuen arteko gehiengoaren akordioa behar izango da, betiere Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoaren arabera (abuztuaren 2ko 11/1985).

Akordio horien berri lan-agintaritzaren mendeko bulego publikoari eman beharko zaio, gordailuan jaso eta akordioen berri eman dezan.

Agintaldia amaituta ordezkaritza berritzatzeko hauteskundeak sustatu behar direnean, agintaldia amaitzeko hiru hilabete falta diren egunetik aurrera baino ezin izango da hori egin.



Podrán promoverse elecciones parciales por dimisiones, revocaciones o ajustes de la representación por incremento de plantilla.

Los convenios colectivos podrán prever lo necesario para acomodar la representación de los trabajadores a las disminuciones significativas de plantilla que puedan tener lugar en la empresa.

En su defecto, dicha acomodación deberá realizarse por acuerdo entre la empresa y los representantes de los trabajadores.

2.

El incumplimiento de cualquiera de los requisitos establecidos en este artículo para la promoción de elecciones determinará la falta de validez del correspondiente proceso electoral; ello no obstante, la omisión de la comunicación a la empresa podrá suplirse por medio del traslado a la misma de una copia de la comunicación presentada a la oficina pública dependiente de la autoridad laboral, siempre que el traslado de la copia se produzca con una anterioridad mínima de veinte días respecto de la fecha de iniciación del proceso electoral fijado en el escrito de promoción.

La renuncia a la promoción con posterioridad a la comunicación de la oficina pública dependiente de la autoridad laboral no impedirá el desarrollo del proceso electoral, siempre que se cumplan todos los requisitos que permitan la validez del mismo.

En caso de concurrencia de promotores para la realización de elecciones en una empresa o centro de trabajo se considerará válida, a efectos de iniciación del proceso electoral, la primera convocatoria registrada, excepto en los supuestos en los que la mayoría sindical de la empresa o centro de trabajo con comité de empresa hayan presentado otra fecha distinta, en cuyo caso prevalecerá esta última, siempre y cuando dichas convocatorias cumplan con los requisitos establecidos.

En este último supuesto la promoción deberá acompañarse de una comunicación fehaciente de dicha promoción de elecciones a los que hubieran realizado otra u otras con anterioridad.

3.

La duración del mandato de los delegados de personal y de los miembros del comité de empresa será de cuatro años, entendiéndose que se mantendrán en funciones en el ejercicio de sus competencias y de sus garantías hasta tanto no se hubiesen promovido y celebrado nuevas elecciones.

Solamente podrán ser revocados los delegados de personal y miembros del comité durante su mandato, por decisión de los trabajadores que los hayan

Hauteskunde partzialak sustatu ahal izango dira, ordea, dimisioak edo errebokazioak daudenean, edo, plantilla gehitu dela eta, ordezkariak egokitu behar denean.

Enpresako plantillak nabarmen gutxitzen badira, hitzarmen kolektiboetan aurreikusita utz daiteke langileen ordezkariak ere egoera horretara egokitzeko beharrezkoa dena.

Halakorik egon ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko akordioz egin beharko da egokitzapen hori.

2.

Artikulu honetan hauteskundeak sustatzeko ezarritako betekizunak ez betetzeak hauteskunde-prozesua baliogabea izatea ekarriko du. Hori hala izan arren, enpresari jakinarazpenik ez egitea bada kasua, lan-agintaritzaren mendeko bulego publikoan aurkeztutako jakinarazpenaren kopia emanaz konpondu ahal izango da egoera hori, betiere sustapen-idatzian hauteskunde-prozesua hasteko zehaztutako eguna baino gutxienez hogeita egun lehenago ematen badiote kopia hori.

Lan-agintaritzaren mendeko bulego publikoari jakinarazpena egin eta gero sustapenari uko egiteak ez du hauteskunde-prozesua garatzea eragotziko, prozesua baliozko egiten duten betekizun guztiak betetzen badira.

Enpresa edo lantoki batean hauteskundeak sustatzaile bat baino gehiago badago aldi berean, erregistratutako lehenengo deialdia joko da baliozkotzat hauteskunde-prozesua hasteko. Dena den, enpresa-batzordea daukan enpresan edo lantokian gehiengo sindikalak beste dataren bat aurkeztu badu, azken hori gailenduko da, baldin eta ezarritako betekizunak betetzen badituzte deialdi horiek.

Azken kasu horretan, sustapenarekin batera, hauteskundeak sustapen horren jakinarazpen fedemailea helarazi behar zaie aurretik beste sustapen bat edo gehiago egin dutenei edo dituztenei.

3.

Langileen ordezkarien eta enpresa-batzordeko kideen agintaldia lau urterako izango da, eta jardunean jarraituko dute beren eskumenak eta bermeak gauzatzen, harik eta beste hauteskunde berri batzuk sustatu eta egin arte.

Langileen ordezkariak eta batzordeko kideak agintaldian daudela errebokatzeko, hautesle izan diren langileen erabakia behar da nahitaez,



elegido, mediante asamblea convocada al efecto a instancia de un tercio, como mínimo, de los electores y por mayoría absoluta de estos, mediante sufragio personal, libre, directo y secreto.

No obstante, esta revocación no podrá efectuarse durante la tramitación de un convenio colectivo, ni replantearse hasta transcurridos, por lo menos, seis meses.

4.

En el caso de producirse vacante por cualquier causa en los comités de empresa o de centros de trabajo, aquella se cubrirá automáticamente por el trabajador siguiente en la lista a la que pertenezca el sustituido.

Cuando la vacante se refiera a los delegados de personal, se cubrirá automáticamente por el trabajador que hubiera obtenido en la votación un número de votos inmediatamente inferior al último de los elegidos.

El sustituto lo será por el tiempo que reste del mandato.

5.

Las sustituciones, revocaciones, dimisiones y extinciones de mandato se comunicarán a la oficina pública dependiente de la autoridad laboral y al empresario, publicándose asimismo en el tablón de anuncios.

#### **Artículo 68. Garantías.**

Los miembros del comité de empresa y los delegados de personal, como representantes legales de los trabajadores, tendrán, a salvo de lo que se disponga en los convenios colectivos, las siguientes garantías:

a) Apertura de expediente contradictorio en el supuesto de sanciones por faltas graves o muy graves, en el que serán oídos, aparte del interesado, el comité de empresa o restantes delegados de personal.

b) Prioridad de permanencia en la empresa o centro de trabajo respecto de los demás trabajadores, en los supuestos de suspensión o extinción por causas tecnológicas o económicas.

c) No ser despedido ni sancionado durante el ejercicio de sus funciones ni dentro del año siguiente a la expiración de su mandato, salvo en caso de que esta se produzca por revocación o dimisión, siempre que el despido o sanción se base en la acción del trabajador en el ejercicio de su representación, sin perjuicio, por tanto, de lo establecido en el artículo 54.

Asimismo no podrá ser discriminado en su promoción económica o profesional en razón, precisamente, del desempeño de su representación.

gutxienez hautesleen heren batek horretarako eskatutako biltzarrean bilduta, eta hautesleen gehiengo osoaren onarpenez, botoa bakarka, aske, zuzenean eta isilpean emanda.

Hala ere, ezin izango da halako errebokaziorik egin hitzarmen kolektiboa izapidetzen ari den artean, ez eta berriz planteatu ere, gutxienez sei hilabete igaro arte.

4.

Enpresako edo lantokiko batzordeetan karguren bat hutsik gelditzen bada, ordezkatuaren zerrendan hurrengo dagoen langileak beteko du hori berez eta beste barik.

Hutsa, aldiz, langileen ordezkarien taldean gertatzen bada, azken hautatuaren hurrengo boto kopuru txikiagoa lortu duen langileak beteko du berez eta beste barik.

Eta agintaldiak dirauen artean izango da ordezkari.

5.

Ordezkapenak, errebokatzeak, dimisioak eta agintaldi-azkentzeak lan-agintaritzaren mendeko bulego publikoari eta enpresaburuari jakinarazi behar zaizkie, eta iragarki-oholean argitaratu.

#### **68. artikulua. Bermeak.**

Enpresa-batzordeko kideek eta langileen ordezkariak, langileen legezko ordezkariak direnez, hitzarmen kolektiboetan xedatutakoa baztertu gabe, berme hauek izango dituzte:

a) Falta astun edo oso astunengatik ezarritako zehapenen kasuan, kontrako espedientea irekitzeko bermea; halakoetan, interesdunari eta enpresa-batzordeari edo langileen gainontzeko ordezkariari entzun behar zaie.

b) Beste langileen gaintetik, lehentasuna izango dute enpresan edo lantokian jarraitzeko, teknika edo ekonomiako arrazoiak direla medio kontratua eten edo amaitzen denean.

c) Ez beren funtzioak egiten ari direla, ez eta agintaldia amaitu eta hurrengo urtean, ezin dira ez kaleratu, ez zehatu, baldin eta langileak ordezkarietara lanetan diharduela egindakoa oinarri hartuta agintzen bada kaleratzea edo zehapena, eta agintaldia amaitzea errebokazioz edo dimisioz gertatu ez bada. Hortaz, 54. artikuluan ezarritakoa errespetatu beharko da.

Gainera, ezin izango zaie bereizkeriarik egin soldatetan edo lanbidean sustatzeko orduan, hain zuzen, ordezkarietara lanetan aritzeagatik.





d) Expresar, colegiadamente si se trata del comité, con libertad sus opiniones en las materias concernientes a la esfera de su representación, pudiendo publicar y distribuir, sin perturbar el normal desenvolvimiento del trabajo, las publicaciones de interés laboral o social, comunicándolo a la empresa.

e) Disponer de un crédito de horas mensuales retribuidas cada uno de los miembros del comité o delegado de personal en cada centro de trabajo, para el ejercicio de sus funciones de representación, de acuerdo con la siguiente escala:

1.º Hasta cien trabajadores, quince horas.

2.º De ciento uno a doscientos cincuenta trabajadores, veinte horas.

3.º De doscientos cincuenta y uno a quinientos trabajadores, treinta horas.

4.º De quinientos uno a setecientos cincuenta trabajadores, treinta y cinco horas.

5.º De setecientos cincuenta y uno en adelante, cuarenta horas.

Podrá pactarse en convenio colectivo la acumulación de horas de los distintos miembros del comité de empresa y, en su caso, de los delegados de personal, en uno o varios de sus componentes, sin rebasar el máximo total, pudiendo quedar relevado o relevados del trabajo, sin perjuicio de su remuneración.

## Sección 2.ª Procedimiento electoral

### Artículo 69. Elección.

1.

Los delegados de personal y los miembros del comité de empresa se elegirán por todos los trabajadores mediante sufragio personal, directo, libre y secreto, que podrá emitirse por correo en la forma que establezcan las disposiciones de desarrollo de esta ley.

2.

Serán electores todos los trabajadores de la empresa o centro de trabajo mayores de dieciséis años y con una antigüedad en la empresa de, al menos, un mes, y elegibles los trabajadores que tengan dieciocho años cumplidos y una antigüedad en la empresa de, al menos, seis meses, salvo en aquellas actividades en que, por movilidad de personal, se pacte en convenio colectivo un plazo inferior, con el límite mínimo de tres meses de antigüedad.

d) Batzordea bada, era bateratuan eta askatasunez euren iritzia adieraz dezakete, ordezkari-esparruko gaiei buruz; lan eta gizarteko gaitan interesgarriak diren argitalpenak argitaratu eta banatu ahal izango dituzte, laneko ohiko martxa eragotzi gabe, eta enpresari jakinarazita egiten bada.

e) Lantoki bakoitzean batzordeko kide bakoitzak eta lantokiko langileen ordezkari bakoitzak hilean ordu kopuru bat izango du, ordainduta, ordezkari-zako funtzioak betetzeko, mailaketa honen arabera:

1.a Ehun langile arteko enpresetan, hamabost ordu.

2.a Ehun eta bat langiletik berrehun eta berrogeita hamarrera bitarteko enpresetan, hogeita ordu.

3.a Berrehun eta berrogeita hamaika langiletik bostehunera bitartekoetan, hogeita hamar ordu.

4.a Bostehun eta bat langiletik zazpiehun eta berrogeita hamarrera bitartekoetan, hogeita hamabost ordu.

5.a Zazpiehun eta berrogeita hamaika langiletik gorako bitartekoetan, berrogei ordu.

Hitzarmen kolektiboz itunduta utz daiteke enpresa-batzordeko kideen eta, kasua beste hau bada, langileen ordezkarien orduak kide batentzat edo zenbait kiderentzat metatzea, gehiengo osoa gainditu gabe; lanetik libre gera daiteke edo daitezke hartara, ordainketetan kalterik izan gabe.

## 2. atala. Hauteskunde-prozedura

### 69. artikulua. Hautaketa.

1.

Langile guztien artean hautatuko dituzte langileen ordezkariak eta enpresa-batzordeko kideak, botoa, bakarka, zuzenean, aske eta isilpean emanda; postaz ere eman ahal izango da, lege hau garatzeko xedapenetan ezarritako moduan.

2.

Enpresako edo lantokiko langile guztiak izango dira hautesle, hamasei urtetik gorakoak badira, eta enpresan, gutxienez, hilabeteko antzinatasuna badute; hautagai, aldiz, hemezortzi urte eginda, eta enpresan, gutxienez, sei hilabeteko antzinatasuna dutenak. Hala ere, jarduera batzuetan, langileen mugigarritasuna den modukoa delako, epe txikiagoak ere itundu ahal izango dira hitzarmen kolektiboetan, baina hiru hilabeteko antzinatasuna izango da gutxieneko muga.



Los trabajadores extranjeros podrán ser electores y elegibles cuando reúnan las condiciones a que se refiere el párrafo anterior

3.

Se podrán presentar candidatos para las elecciones de delegados de personal y miembros del comité de empresa por los sindicatos de trabajadores legalmente constituidos o por las coaliciones formadas por dos o más de ellos, que deberán tener una denominación concreta atribuyéndose sus resultados a la coalición.

Igualmente podrán presentarse los trabajadores que avalen su candidatura con un número de firmas de electores de su mismo centro y colegio, en su caso, equivalente al menos a tres veces el número de puestos a cubrir.

#### **Artículo 70. Votación para delegados.**

En la elección para delegados de personal, cada elector podrá dar su voto a un número máximo de aspirantes equivalente al de puestos a cubrir entre los candidatos proclamados.

Resultarán elegidos los que obtengan el mayor número de votos.

En caso de empate, resultará elegido el trabajador de mayor antigüedad en la empresa.

#### **Artículo 71. Elección para el comité de empresa.**

1.

En las empresas de más de cincuenta trabajadores, el censo de electores y elegibles se distribuirá en dos colegios, uno integrado por los técnicos y administrativos y otro por los trabajadores especialistas y no cualificados.

Por convenio colectivo, y en función de la composición profesional del sector de actividad productiva o de la empresa, podrá establecerse un nuevo colegio que se adapte a dicha composición.

En tal caso, las normas electorales de este título se adaptarán a dicho número de colegios.

Los puestos del comité serán repartidos proporcionalmente en cada empresa según el número de trabajadores que formen los colegios electorales mencionados.

Si en la división resultaren cocientes con fracciones, se adjudicará la unidad fraccionaria al grupo al que correspondería la fracción más alta; si fueran iguales, la adjudicación será por sorteo.

2.

En las elecciones a miembros del comité de empresa la elección se ajustará a las siguientes reglas:

Langile atzerritarrak hautesle eta hautagai izan daitezke, aurreko lerrokadan aipatutako baldintzak betetzen badituzte.

3.

Legez eraturako langile-sindikatuak, edo sindikatu bik edo gehiagok osaturako koalizioek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaiak, hain zuzen, langileen ordezkariak eta enpresa-batzordeko kideak hautatzeko; koalizioek izen zehatz bat eduki behar dute, eta emaitzak koalizioari esleituko zaizkio.

Lantoki eta hautesleku bereko hautesleen sinadura kopuru batekin abalaturako hautagai-zerrendako langileak ere aurkez daitezke, baldin eta bete beharreko postu kopuruaren hirukoitza bada gutxienez sinadurena.

#### **70. artikulua. Ordezkaritarako bozketa.**

Langileen ordezkari izateko hautaketan, izendaturako hautagaien artean bete beharreko postuak adina izangairi eman ahal izango dio botoa hautesle bakoitzak.

Boto kopuru handiena lortzen duten hautagaiak izango dira hautatuak.

Berdinketarik badago, enpresan antzintasun luzeena duen langilea izango da hautatua.

#### **71. artikulua. Enpresa-batzorderako hautaketa.**

1.

50 langile baino gehiagoko enpresetan, bi hauteslekutan banatu behar da hautesle eta hautagaien zerrenda: teknikariek eta administrariak osaturakoa bata, eta espezialistek eta kualifikatu gabeko langileek osaturakoa bestea.

Enpresaren edo produkzio-jardueraren arloko langileen osakeraren arabera, beste hautesleku bat egitea erabaki daiteke hitzarmen kolektiboz, osaera horri egokituta.

Halakoetan, hautesleku kopuru horretara egokitu behar dira titulu honetako hauteskunde-arauak.

Enpresa bakoitzean, aipaturako hauteslekuak osatzen dituzten langileen proportzioan banatu behar dira batzordeko postuak ere.

Zatiketa eginda zatikiak ateratzen badira zatidurako emaitzan, zatikirik handiena duen taldeari esleitu behar zaio zatiki-unitatea; zatiak berdinak badira, zozketaz egin behar da esleipena.

2.

Enpresa-batzordeko kideetarako hauteskundeetan arau hauen arabera egin behar da hautaketa:



a) Cada elector podrá dar su voto a una sola de las listas presentadas para los del comité que corresponda a su colegio.

Estas listas deberán contener, como mínimo, tantos nombres como puestos a cubrir.

No obstante, la renuncia de cualquier candidato presentado en algunas de las listas para las elecciones antes de la fecha de la votación no implicará la suspensión del proceso electoral ni la anulación de dicha candidatura aun cuando sea incompleta, siempre y cuando la lista afectada permanezca con un número de candidatos, al menos, del sesenta por ciento de los puestos a cubrir.

En cada lista deberán figurar las siglas del sindicato o grupo de trabajadores que la presenten.

b) No tendrán derecho a la atribución de representantes en el comité de empresa aquellas listas que no hayan obtenido como mínimo el cinco por ciento de los votos por cada colegio.

Mediante el sistema de representación proporcional se atribuirá a cada lista el número de puestos que le corresponda, de conformidad con el cociente que resulte de dividir el número de votos válidos por el de puestos a cubrir.

Si hubiese puesto o puestos sobrantes se atribuirán a la lista o listas que tengan un mayor resto de votos.

c) Dentro de cada lista resultarán elegidos los candidatos por el orden en que figuren en la candidatura.

3.

La inobservancia de cualquiera de las reglas anteriores determinará la anulabilidad de la elección del candidato o candidatos afectados.

### **Artículo 72. Representantes de quienes presten servicios en trabajos fijos-discontinuos y de trabajadores no fijos.**

1.

Quienes presten servicios en trabajos fijos-discontinuos y los trabajadores vinculados por contrato de duración determinada estarán representados por los órganos que se establecen en este título conjuntamente con los trabajadores fijos de plantilla.

2.

Por tanto, a efectos de determinar el número de representantes, se estará a lo siguiente:

a) Hauteslearen hauteslekuari dagokion batzorderako aurkeztutako zerrendetako bakar bati eman ahal izango dio botoa hautesle bakoitzak.

Zerrenda horietan, gutxienez, bete beharreko postuak adina izen agertu behar dira.

Hala ere, hauteskundeetarako zerrendaren batean aurkeztutako edozein hautagaik bozketa eguna baino lehenago uko egiten badio hautagai izateari, horrek ez du ekarriko hauteskunde-prozesua etetea, ez eta hautagai-zerrenda hori deuseztatzea ere, nahiz eta zerrenda osoa izan ez, baldin eta zerrendan agertzen diren hautagaien kopurua, gutxienez, bete beharreko postuen ehuneko hirurogeikoaren adinakoa bada.

Zerrenda aurkeztu duen langile taldearen edo sindikatuaren siglak agertu behar dira bakoitzaren zerrendan.

b) Hautesleku bakoitzean botoen ehuneko bost gutxienez lortzen ez duten zerrendek ez dute enpresa-batzorderako ordezkariak izendatzeko eskubiderik edukiko.

Proporziozko ordezkari-tz sistema erabiliz aitortuko dira zerrenda bakoitzari dagozkion postuak, boto baliodunen kopuruaren eta bete beharreko postuen artean zatiketa eginik lortutako zatiduraren arabera.

Posturen bat edo gehiago bete gabe izanez gero, boto hondarrak gehien duen edo duten zerrendei aitortuko zaie.

c) Hautagai-zerrenda bakoitzean agertzen diren hurrenkeraren arabera hautatuko dira hautagaiak.

3.

Aurreko edozein arau bete gabe uzten bada, kasuan kasuko hautagaiaren edo hautagaien hautaketa deuseztagarria izango da.

### **72. artikulua. Aldizkako lan finkoetan dihardutenen eta finkoak ez diren langileen ordezkariak.**

1.

Aldizkako lan finkoetan dihardutenen ordezkari-tz, eta iraupen mugatuko kontratuz lotutako langileen ordezkari-tz titulu honetan ezarritako organoen bidez egingo da, plantillan finkoak diren langileen ordezkari-tzarekin batera.

2.

Beraz, ordezkari kopurua zehazteko, puntu hauek hartu behar dira kontuan:



a) Quienes presten servicios en trabajos fijos-discontinuos y los trabajadores vinculados por contrato de duración determinada superior a un año se computarán como trabajadores fijos de plantilla.

b) Los contratados por término de hasta un año se computarán según el número de días trabajados en el periodo de un año anterior a la convocatoria de la elección.

Cada doscientos días trabajados o fracción se computará como un trabajador más.

### **Artículo 73. Mesa electoral.**

1.

En la empresa o centro de trabajo se constituirá una mesa por cada colegio de doscientos cincuenta trabajadores electores o fracción.

2.

La mesa será la encargada de vigilar todo el proceso electoral, presidir la votación, realizar el escrutinio, levantar el acta correspondiente y resolver cualquier reclamación que se presente.

3.

La mesa estará formada por el presidente, que será el trabajador de más antigüedad en la empresa, y dos vocales, que serán los electores de mayor y menor edad.

Este último actuará de secretario.

Se designarán suplentes a aquellos trabajadores que sigan a los titulares de la mesa en el orden indicado de antigüedad o edad.

4.

Ninguno de los componentes de la mesa podrá ser candidato y, de serlo, le sustituirá en ella su suplente.

5.

Cada candidato o candidatura, en su caso, podrá nombrar un interventor por mesa.

Asimismo, el empresario podrá designar un representante suyo que asista a la votación y al escrutinio.

### **Artículo 74. Funciones de la mesa.**

1.

Comunicado a la empresa el propósito de celebrar elecciones, esta, en el término de siete días, dará traslado de la comunicación a los trabajadores que deban constituir la mesa, así como a los representantes de los trabajadores, poniéndolo

a) Aldizkako lan finkoetan dihardutenak eta urtebete baino gehiagoko iraupen mugatuko kontratuz lotutako langileak plantillako langile finko bailiran zenbatu behar dira.

b) Urtebetera arteko kontratua dutenak, aldiz, hauteskundeetarako deialdiaren aurreko urtean lanean egindako egunen arabera zenbatuko dira.

Lanean berrehun egun edo horren zatiki bat eginez gero, langile bat gehiago bailitzan zenbatuko da.

### **73. artikulua. Hauteskunde-mahaia.**

1.

